

VILLABONAKO UDALA



**Diagnostiko kuantitatiboa**

**2011**

**Migrazioak eta Aniztasuna**

**Villabonan eta Euskal Herrian**

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA</b>	<b>5</b>
<b>3. MIGRAZIOAK ETA ANIZTASUNA VILLABONAN ETA EUSKAL HERRIAN</b>	
<b>3.1.- MAPA EUSKAL HERRIAN</b>	<b>10</b>
<b>3.2. VILLABONAKO EGOERA.</b>	
<b>BIZTANLEEN MAPA, JATORRIAREN ARABERA</b>	<b>19</b>
<b>3.2.1. VILLABONAKO BIZTANLERIAREN EGITURA OROKORRA</b>	<b>20</b>
1.- Osaera, oro har, eta jatorriaren arabeko taldeak	20
2.- Sexua	24
3.- Adina	26
5.- Villabonara beste jatorrietatik iritsitakoak azken mendean epeka	31
<b>3.2.2. VILLABONARREN BANAKETA ESPEZIFIKOA</b>	<b>37</b>
1.- Aniztasunaren mapa, jatorriaren arabera	37
2.- Villabonan eta Euskal Herrian jaiotakoen banaketa	38
3.- Jatorriz Espainiako eta Frantziako estatuetaoak diren pertsonak	45
4.- Europar Batasunean eta munduko beste herrialdetan jaiotakoak	52
5.- Europar Batasuneko estatuetaoak etorritakoak	53
6.- Munduko beste toki batzuetako estatuetaoak eta herrialdeetatik etorritakoak	57
<b>4. VILLABONAKO HEZKUNTZA SISTEMAREN SARBIDEAK ETA IKASLERIAREN JAIOTERRIA</b>	<b>61</b>
<b>5. ONDORIOAK</b>	<b>67</b>
<b>6. ERANSKINA: Villabonara bizitzera etorri direnen lurraldeen zerrenda</b>	<b>70</b>



## 1. SARRERA

Begi bistakoa da nolako aniztasuna ekarri duten historian izaniko migrazio prozesuek, bai Villabonan eta bai Euskal Herri guztian. Aniztasun hori gabe, udalerrri honen eta herri honen errealitate historikoa eta gaur egungo egoera ezin dira ulertu, kultura, soziopolitika, demografia eta ekonomia aldetik.

Era berean, aniztasuna eta migrazioak erronka bat izan dira eta dira udalerrri berean eta gizarte berean bizi eta parte hartzen dugun guztiontzat, nork bere jatorria izanik.

Aniztasuna migrazio prozesuen ondorio da, eta zenbait erronka ekartzen dizkio edozein gizarteren elkarbizitzari; erronka horiek are handiagoak dira mundu globalizatu batean, batez ere gurea bezala estaturik gabeko nazioak direnentzat, egoera eta ikuspegi espezifikoak dituztelako.

Alde horretatik, ez da nahikoa gai honen inguruan gure herrian eta gure herrialdean azken urteotan zabalduriko ikuspegia eta tratamendua.

Izan ere, arlo honetan egin diren diagnostiko eta esku-hartze gehienek logika jakin bat dute oinarrian: beste inguru eta parametro batzuetarako pentsatuak daude, eta ez gure herrialdearen errealitatea eta premiak kontuan harturik.

Horregatik, komeni zen lehenbailehen egitea, gehiago atzeratu gabe, gure herriaren mapa lantzeko saioa, ikuspegi propioa eta espezifiko erabiliz; hartara, modua izango zen aniztasunak dakarren aberastasuna ikusteko, Villabonan gaur egun direnen jatorri guztien fruitu.

## 2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA.

Beraz, hiru helburu zehaztu ziren:

I) Alde batetik, gogoeta kritikoa egin nahi zen, orain arte gai honi buruzko ikerketetan erabilitako abiapuntu eta oinarrien inguruan. Hiru arlotan planteatu zen bide hori, gurea bezalako beste errealitate geopolitiko batzuetan egiten ari den modu berean.

1. Gure herrialdean gai honi buruz eginiko ikerketa eta diagnostiko gehienetan, batez ere zenbait talderen presentzia azpimarratu dute, "atzeritartasun" estatu-nazionalen arabera egokitutako ikuspegi batez; ez ikusia egin diote gure egoera eta historia espezifikoari, eta ez dituzte kontuan hartu nolako muga instituzional eta juridiko-politikoak ditugun horrelako gai konplexu bat kudeatzeko, erakunde estatu-nazional horiek kontrolatzen baitituzte gehienbat honelako gaiak.
2. Neurri handi batean horren guztiaren ondorioz, tratamendua gehiegi makurtu da gizarte, lan eta laguntza eremuetara, bazter batean utzirik gure udalerriarentzat eta gure herriarentzat garrantzitsuak diren zenbait gai, hala nola hizkuntza, kultura eta irakaskuntza, eta eskubide zibil eta politikoak.
3. Eta, azkenik, gai honi buruzko azterketek eta esku-hartzeek bide bakarra jorratu dute: elkarbizitzako esparruetan "besteek" duten presentzia azpimarratu dute, onerako zein txarrerako, bigarren mailan utzirik bi aldetako ikuspegia, elkarrekikotasuna, oinarritzat "gu" hartzen duen ikuspuntua.

II) Bigarrenik, mapa kuantitatibo bat egin beharra planteatu zen, horrela ikuspegi propio eta espezifiko hori erabili ahal izateko, nahiz eta iturri estatistikoaren ondorioz zailtasunak izan. Horretarako, Villabonako udalerrian

2011ko urtarrilaren 1ean eginiko biztanleen udal errolda erabili da batez ere, Espainiako Estadistika Institutu Nazionalak zuzendu aurretik.

III) Azkenik, elkarbizitzarako lehen urratsak eman asmoz, Aniztasun Astea antolatu da, helburu nagusia, jatorri ezberdineko villabonatarren artean elkar ezagutzeko espazioak sortzea izanik.

Prozesu hori abian jartzeko, zenbait fase antolatu ziren, eta horien inguruko lan metodologia eta jarduerak egituratu.

### **1. fasea. 2010ean**

Prestalanak. Proiektuaren zirriborroa landu zen; Udalak eta Anitzak taldeak elkarrekin hitz egin zuten ikuspegi propio eta integral batez gogoeta eta eztabaida egiteko ardatzei buruz.

Proiektua lantzeko, kontuan hartu dira Udaleko zinegotzi eta teknikarien eta Anitzak taldeko teknikarien artean zenbait saiotan izaniko eztabaidak. Era berean, ordu arte Udalean egindakoa ere aztertu da.

### **2. fasea. 2011ko otsailetik ekainera**

Biztanleriaren mapa eguneratu egin da, 2011ko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Errolda eta ikuspegi berri hau abiapuntutzat harturik. "Atzerritarra" oinarri duten azterketa klasikoen ardatza alboratuta, hau izan da abiapuntua: villabonarren "sorterria" edo "jatorria". Hori aldaerarik garrantzitsuenekin gurutzatu da. Jatorriaren adierazleari zenbait lurralde mailatan erreparatu zaio, eta honela banatu da:

- Villabonan eta Euskal Herrian jaioak
- Espainiako edo Frantziako estuetako herrietan jaioak
- Europar Batasuneko estatuetatik etorriak
- Eta munduko gainerako herrietatik etorriak.

Ardatz horrekin aldaera hauek gurutzatu ziren:

- Sexua

- Adina
- Iritsitako urtea

### **3. fasea. Ekaina**

Herritarren parte hartzea sustatu eta diagnostikoan ateratako emaitzak herritarrei helarazteko asmoz, ekainaren 13tik 19ra *Mundua Villabonan; Villabona munduan. Jatorri anitz; herri bat* Aniztasun Astea antolatu zen. Helburuak nagusiki hiru izan ziren: Alde batetik; "Migrazioek Villabonara ekarritako aniztasunaren mapa" aurkeztu eta elkarbizitzarako behar ditugun erreminten inguruan eztabaida sortzen hasi. Bestetik; jatorri aniztasuna kontuan izanik, "Euskara, hezkuntza eta kulturek" gure gizartean eta hezkuntza sisteman dituzten erronkak ezagutu. Azkenik; Villabonako jatorri ezberdinetako pertsonen artean elkar ezagutzeko espazioak sortu. Azkeneko hau, Anitzak Ekimenak dinamizatuz, Villabonako eragile ezberdinen artean antolatu zen: Udaletxeko zinegotzi eta teknikariak (Gaztelekua, Kale Hezitzaileak, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzainak, Euskara Zerbitzuak, Agenda 21, Liburutegia, etab.), Tolosaldea Garatzeneko Migrazio Teknikaria, Banaizbagara Elkartea, Jatorrin Elkartea, Eresargi Abesbatza, Loatzo Musika Estola, Hutsuneak Betez Emakume Elkartea, Jubilatuen Egoitza, HHI, etab.

**2011ko ekainaren 13tik 19ra bitartean antolatutako egitaraua.**

#### ***MUNDUA VILLABONAN; VILLABONA MUNDUAN. JATORRI ANITZ – HERRI BAT***

1) Ekainak 13, astelehena. Anitzak Ekimenaren eskutik.

18:30. JARDUNALDIAREN HASIERA: HORRELA KOAK GARA

18:45. Mahai ingurua: ANIZTASUNA, ELKARTASUNA ETA MIGRAZIOAK Villabonan eta Euskal Herrian.

19:45. EZTABAIDA

Tokia: Aljibe.

2) Ekainak 14, asteartea. Kolore Guztiak-en eskutik.

18:00. IPUIN KONTAKETA. Hans Christian Andersen "Pizgailu magikoa" euskaraz eta arabieraz.

Tokia: Aljibe

3) Ekainak 15, asteazkena. Anitzak Ekimenaren eskutik eta eskolen kolaborazioarekin.

18:00. Mahai ingurua: HIK IKASI, GUK HASI, DENOK HAZI.

Hezkuntza sistema, kultura eta hizkuntzei buruzko solasaldiak.

19:00. EZTABAIDA

Tokia: Blioanitzeko Gela.

4) Ekainak 16, osteguna. Kale Hezitzaileen eskutik

17:00. ALTXORRAREN BILA.

Herrian zehar pistak jarri dira gaia aniztasuna izanik.

Tokia: Herrian zehar

5) Ekainak 18, larunbata.

11:00. SUKALDARITZA IKASTAROA. Kolaboratzaileak: Hutsuneak betez Emakume Elkartea, Jubilatuen Egoitza, HHI, Ongizate Saila, etab.

Munduko janariak egiten ikasi: Euskal Herrikoa (Villabona eta Nafarroa), Espainiar estatukoak (Galizia eta Extremadura), Europar Batasunekoak (Alemania eta Portugal), Munduko beste lurraldetakoak (Maroko eta Mexiko).

11:30. MARRAZKI LEHIAKETA. Gaia: Mundua Villabonan; Villabona munduan. Gaztelekuaren eskutik.

Hiru kategorii: 3-5 urte; 6-8 urte eta 9-11 urte.

Tokia: Errebote Plazan

13:00. DENOK ELKARREKIN KANTUAN. Banaizbagara Elkartea, Eresargi Abesbatza eta Loatzo Musika Eskolaren eskutik.

Jatorri ezberdinetako pertsonen artean hizkuntza ezberdinetan abestu (euskara, gaztelera eta arabiera).

Tokia: Berdura Plazan

19:30. MUSIKA JAIALDIA. *Bumpada Sound* Taldea.

Tokia: Errebote Plazan

Astean zehar egin diren ekintzak:

“JATORRI ANITZ” ERAKUSKETA. Anitzak Ekimenaren eskutik.

Euskal Herrian bizi diren eta migrazio esperientzia bizi duten pertsonen testigantzak: faltan botatzen dena, errealitate berria, zailtasuna, hizkuntzak,...

Tokia: Aljibe

MUNDUKO MAHAI JOLASAK. Gaztelekuaren eskutik.

Lurralde ezberdinetan egiten diren jolasak sortu, arauak ikasi eta jolastu.

Tokia: Gaztelekua.

Jardunaldi hauen bitartez, proiektu honen ildo nagusiari heldu nahi izan diogu, alegia elkarbizitzaren sustapenari. Esan bezala, ekintza hauen guztien helburua, jatorri ezberdinetako villabonatarren artean, **elkar ezagutzeko espazioak sortzea** izan da. Horretarako, esan bezala, herriko hainbat eragilerekin jarri gara harremanetan beraiek guztiek ere proiektu honetako subjektu aktiboak bihurtuz.

Beraz, aurrera begira, prozesu parte hartzaile bat martxan jartzeko lehen urratsak eman direla esan daiteke. Proiektu honen bitartez, Villabonako hainbat alorretan migrazio eta aniztasunaren ikuspegia txertatu ahal izan da, nahiz eta oraindik lan handia egiteko geratu, abiapuntu bat martxan jarri dela esan daiteke.

### **3. MIGRAZIOAK ETA ANIZTASUNA VILLABONAN ETA EUSKAL HERRIAN**

#### **3.1.- MAPA EUSKAL HERRIAN.**

Euskal Herrian, migrazio prozesuek garrantzi handia izan dute eta dute gaur egun ere. Euskal gizartea zer izan den eta gaur egun zer den ezin da ulertu kontuan hartu gabe zein eragin sakona izan duten historian hainbat arrazoiengatik izaniko hainbat motatako migrazioek.

Historia modernoan eta garaikidean, Euskal Herriatik biztanle asko joan dira arrazoi ekonomiko eta politikoengatik. Erraz ulertzen da zergatik galdu izan diren biztanleak, gehienak ondo prestatutakoak eta kontzientzia maila handikoak, hainbat garai eta faktore kontuan harturik: janari eskasia izandako garaiak, karlistaldiak, gerra zibila Hegoaldean, II. Mundu Gerra Iparraldean, 1970 eta 1980ko ekonomia eta industria moldatzeko prozesuak, oraingo gatazka politikoa...

Gaur egun, ehunka mila dira euskal diasporako kideak eta haren ondorengoak mundu guztian, batez ere Ipar Amerikan eta Hego Amerikan, Europan eta, azkenik, Australian. Haietako asko beren nortasuna gordetzen eta jatorriarekiko harremani eusten saiatzen diren komunitateetan batzen dira. Oraindik ere ezin da esan euskal gizartea immigrazio herri hutsa denik; izan ere, oso pareko kopuruak osatzen dituzte joandakoak eta etorritakoak.

Zazpi lurraldeetan 3 milioi biztanle izanik, 2007. urtean ia 40.000 lagunek alde egin zuten Euskal Herriatik, zenbait arrazoi zirela medio. Eta, hasieran pentsa zitekeenaz bestera, emigrante horietatik herenak bakarrik ziren beste herrialde batzuetan jaioak, batez ere Espainiako edo Frantziako estatuetakoko lekuren batean jaioak (10.00 inguru). Urte horretan emigratu zuten beste bi herenak Euskal Herrian jaioak dira, haietako asko gazteak eta euskaldunak.

Era berean, immigrazioa oso tradizio handikoa izan da Euskal Herrian. Biztanle asko jarri dira Euskal Herrian bizitzen, bai arrazoi ekonomikoengatik industrializazioaren fase guztietan, bai Espainiako eta Frantziako estatuen

bultzada politikoengatik, bai bi arrazoiengatik batera.

Daturik deigarriena aipatzeko, esan dezagun 1950 eta 1975 bitartean 400.000 immigrante baino gehiagokoa izan zela Euskal Herriko zazpi lurraldeetako migrazio saldo garbia. Beste herrialde batzuetatik eta Espainiako eta Frantziako estatuetatik etorritako pertsona fluxu hori nabarmena da orain ere, nahiz eta moteldu den eta osaera aldatuz doan arian-arian.

Arestian, ikusi dugu zenbat ziren 2007an euskal emigranteak. Urte hartan bertan, Euskal Herrira etorritakoak ere 40.000 pertsona inguru izan ziren. Haietatik erdiak zazpi lurraldeetako batean jaio eta lehendik emigratutakoak ziren; 10.000 inguru, berriz, Espainiako eta Frantziako estatuetatik etorriak ziren, eta beste 10.000, Europar Batasuneko estatuetatik edo beste herrialde batzuetatik iritsiak.

### 1. Grafikoa: Euskal Herriko migrazio saldoa. 1962-2005

6.5. Migrazio saldoak. Euskal Herria, 1962-2005 (epealdika)




Iturria: *Datu Talai*. Biztanleriaren Berezko Mugimendua, Erregistro Zibila, biztanleria zentsuak, biztanleria eroldak eta biztanleria estatistikak (EUSTAT, IEN, INE, INSEE).

Oharra: Datuek ez dute ematen Trebiñuren, Argantzonen eta Villaverde Turtziozen berri. Nafarroa Behereko Erango udalerriarentzat, 1962-1968 eta 1968-1975 epealdietarako ez dugu daturik. Migrazio saldoak ateratzeko, guk egindako kalkuluetan oinarritu gara. Kalkulu horietan, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako 2003 eta 2004 urteetako heriotzen datuak 2002. urtekoak dira (ikusi Metodologia Oharrak).

Baina Euskal Herriko biztanleria saldoak bilakaera desberdina izan du urteotan, lurraldearen arabera, bi muturretan dauden lurraldeei erreparatuta ikusten den bezala. Lapurdik saldo positiboa izan du beti, tertziarizazio turistikoaren ondorioz; Zuberoak, aldiz, etengabe galdu ditu biztanleak, gehienak kostaldera, Tolosara eta Parisera doazen gazte euskaldunak. Euskal biztanleriaren

migrazio saldoen dinamiken bi mutur horiek ere antzematen dira, neurri apalagoan, Bizkaiko emaitzetan, alde batetik, eta Arabakoetan, bestetik.

## 2. Grafikoa: Biztanleriak herrialdeka




Nolanahi ere, migrazio saldo horiek eta euskal biztanleria autoktonoaren hazkunde begetatibo negatiboa kontuan harturik, argi ikusten da beste herrialde batzuetatik Euskal Herrira bizitzera etorritakoen arabera dela gizartearen gaztetzea eta zahartzea, Zuberoan izan ezik.

Horren ondorioz, egungo euskal gizartean asko dira beste herrialde eta herri batzuetan jaiotakoak. Oso pertsona eta talde heterogeneoak dira, eta gizartean parte hartzeko eta integratzeko oso maila desberdinak dituzte.

Gaur egun Euskal Herrian bizi diren 3 milioitik gorako lagunetatik %25 baino gehiago, hau da, 800.000 lagun inguru, Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira. Eta beste hainbestek Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira ama eta/edo aita.

### 3. Grafikoa: Euskal Herri guztiko biztanleen jaioterriak. 2005



Hala, gaur egun Euskal Herritik kanpo jaiotakoetatik gehien-gehienak (600.000 inguru, %18) Espainiako eta Frantziako estatuetan jaiotakoak dira, eta gainerakoak Europar Batasuneko herri edo estatu batean edo munduko beste herri batean jaiotakoak dira.


#### 1. Taula: Euskal Herri guztiko biztanleen jatorriak 2009

##### GU, EUSKAL HERRITARROK 2009. Jaioterria

<b>GUZTIRA EUSKAL HERRITARROK</b>	<b>3.005.000</b>	<b>%100</b>
<b>EUSKAL HERRIAN JAIOTAKOAK</b>	<b>2.273.000</b>	<b>%75</b>
<b>BESTE HERRIETAN JAIOTAKOAK</b>	<b>778.000</b>	<b>%25</b>

Euskal Herritik kanpo jaiotakoaren %80 batez ere euskal lurraldeetako hiriburu-eremu metropolitanoetan biltzen dira; izan ere, Lapurdin izan ezik, 40ko urteez geroztik etorkinak batez ere industria sektorearekin lotuta egon dira, eta 80ko urteez geroztik, zerbitzu sektorearekin lotuta.

#### 4. Grafikoa: Egungo euskal biztanleen sorterriak. 2009



Hau da, hori bat dator euskal biztanleriak mendi eta landa ingurutik eta herri txiki eta ertainetatik konurbazio metropolitanoetara eginiko mugimenduarekin, baina modu nabarmenagoan eta azkarragoan.

#### 2. Taula: Egungo euskal biztanleen sorterriak. 2009


##### GU, EUSKAL HERRITARRAK 2009. Jaioterria

<b>GUZTIRA EUSKAL HERRITARRAK</b>	<b>3.005.000</b>	<b>%100</b>
<b>Euskal Herrian</b>	<b>2.273.000</b>	<b>%75</b>
<b>Espainiako eta Frantziako estatuetan</b>	<b>551.000</b>	<b>%18</b>
<b>Europar Batasunean</b>	<b>62.000</b>	<b>%2</b>
<b>Munduko beste herrietan</b>	<b>165.000</b>	<b>%5</b>

Immigrante guztien erdiak Bizkaian bizi dira (360.000 inguru). Biztanleria kontuan harturik, Lapurdik du immigrante portzentajerik handiena (%50etik gora), gero Nafarroa Behereak (%32), Arabak (%29) eta Bizkaiak (%26). Immigrante gutxien Nafarroa Garaiak du (biztanleria guztiaren %18), gero

Zuberoak (%20) eta Gipuzkoak (%22). Gainera, garrantzitsua da kontuan izatea Euskal Herriko biztanle guztien %12k (360.000 lagun inguru) bi estatuetatik etorritakoak dituztela aita eta ama. Eta beste hainbestek aita edo ama dute immigrante.


6.2. Hamabost urtetik gorako biztanleen banaketa, norberaren eta gurasoen jatorriaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Adierazi dugunez, Espainiako eta Frantziako estatuetatik iritsitako immigrazio "tradizionalari" —orain ere iristen da— beste bat gehitu zaio 80ko urteez geroztik: Europako beste toki batzuetatik eta Europaz kanpotik etorritakoak. Horrek berekin dakar immigrazioaren heterogeneotasuna eta aniztasuna oso handia izatea Euskal Herrian. Ez jatorri geografikoagatik eta kulturengatik bakarrik, baita duten herritartasun motagatik, kualifikazio eta prestakuntzagatik, adinagatik eta generoagatik, gizarteratzeko produkzio tokiagatik, integrazioarako jarrera eta strategiengatik, eta abar.

Hala, sorterriari eta jatorriko kulturari erreparatuta, gaur egun Euskal Herritik kanpo jaio diren euskal biztanle guztien herenak Gaztela-Leonen jaiotakoak dira, eta gero datoz Extremaduran, Galizian, Andaluzian eta Paris inguruan jaiotakoak. Gainerakoak, 200.000 lagun (euskal biztanle guztien %5 ia), Kolonbian eta Ekuadorren jaiotakoak dira, eta ondotik Marokon eta Portugalen jaiotakoak daude.

**5. Grafikoa: Euskal Herritarrok jaioterriaren arabera 2009**



Beste herri eta herrialde batzuetan jaiotakoak, Frantziako estatuan jaiotako gehienak izan ezik, lan kontuengatik etorriak dira, batez ere Espainiako estatutik eta Europako beste estatu eta herrialde batzuetatik iritsitakoak. Baina "hegoaldetik" heldutakoak lan eta politika kontuengatik etorritakoak dira. Biztanle talde horiek lan egiteko adinean daude, eta kualifikazioa eta prestakuntza aldatu egiten dira batetik bestera.

Euskal Herrian bizitzen jarri diren edo jarri nahi duten pertsonak eta taldeek badute beste ezaugarri garrantzitsu bat: emakumeak gero eta gehiago dira. Izan ere, alde batetik, emakume kopurua eta gizon kopurua berdintzen ari dira,

Euskal Herrian jaiotakoen tasetara hurbilduz; bestetik, beste garai batzuetan gizona bakarrik zegoen edo familiaren euskarri zen, baina orain eskema hori desagertzen ari da eta beste bat azaltzen ari da, non gero eta pisu handiagoa duten bakarrik dauden edo familiaren euskarri diren emakumeek.

Kanpotik iritsitakoen artean, formalki "jardueratzat" hartu izan den horren inguruko tasak apalagoak dira emakumeen artean gizonen artean baino, Euskal Herrian jaiotakoekin gertatzen den bezala. Era berean, kanpotik etorri eta formalki "aktibotzat" hartutako emakumeak, batez ere, zerbitzuen sektorean aritzen dira, nagusiki "hurbiltasunekoetan", eta gehiago eragiten diete ezkutuko ekonomiak, enplegu informalek eta langabeziak.

Oro har, eta kontuan harturik heterogeneotasuna oso handia dela eta eskubide aldetik desberdintasun handiak dituztela, kanpoan jaiotakoei gogorrago eragiten ari zaie langabezia eta krisia, eta horrek ekarri du zenbait bere herrira itzultzea, gogoz kontra bada ere.

Azkenik, Euskal Herritik kanpo jaiotakoen jatorrien heterogeneotasun eta aniztasunak berekin ekarri du kultura eta hizkuntza aniztasuna ere asko handitzea. Gaur egun, Euskal Herrian munduko 50 estatutatik gora heldutako pertsonak daude. Horrek esan nahi du harreman zabalagoa dagoela beste herri batzuekin haien diasparen bitartez eta, gainera, Euskal Herriko hiru nortasun etno-kultural eta linguistikoek eskema aldatu egin dela, sakon aldatu ere. Hala, euskara, espainola eta frantsesa ez ezik, beste 100 hizkuntza ere erabiltzen dira gaur egun Euskal Herrian. Horietako batzuk, gainera, hala nola galego-portugesa, arabiera eta amazigera, dozenaka mila lagunek erabiltzen dituzte.

Euskal Herriko immigrazio "tradizionalak", alegia, Espainiako eta Frantziako estatuetatik iritsitakoak, sakon aldatu zuen, gizartearen egitura ez ezik, baita nortasun politiko eta kulturalen dinamika ere. Migrazio fluxu hori ez da eten, eta, gainera, gehitu egin zaio Europar Batasunaren barrenean zein kanpotik heldutako immigrazio "berria". Immigrazio "berri" horrek aurrekoaren ezaugarri batzuk ditu, eta desberdina da beste alde batzuetatik begiratuta. Nolanahi ere, bi immigrazio mota horiek eragin askotarikoa eta konplexua dute.

Alde batetik, talde batzuen eta besteen artean desberdintasun handiak izanik ere, argi eta garbi laguntzen dute biztanle kopuruari eusten eta ekonomiaren eta produkzioaren hazkundera lortzen, baina, bestetik, ahalegin bereziak egin beharra ekartzen dute kultura, irakaskuntza eta hizkuntza berreskuratze eta normalizatze prozesuan. Era berean, zuzenean eragiten dute nortasunen eta haien erabilera politikoen egoeran, talde batetik bestera desberdintasun handiak izanik ere gai honetan.

### **3.2. VILLABONAKO EGOERA. BIZTANLEEN MAPA KUANTITATIBOA, JATORRIAREN ARABERA**

Honako elementu hauek izan dira abiapuntua Villabonako biztanleak jatorriaren arabera aztertzeko eta azterketa deskribatzeko.

Alde batetik, 2011ko urtarrilean eginiko udal errolda izan dugu estatistika iturri nagusia. Era berean, beste iturri batzuk ere erabili ditugu, beste lurralde batzuekin edo sektore batzuekin konparazioak egin nahi izan ditugunean.

Bestetik, lau talde nagusitan antolatu ditugu Villabonako oraingo biztanleen jatorriak:

- Villabonan, Gipuzkoan eta/edo Euskal Herrian jaioak.
- Espainiako eta Frantziako estatuetakoko herrialde eta inguruetatik iritsiak.
- Europar Batasuneko herrialde eta estatuetakotatik iritsiak.
- Eta, azkenik, munduko gainerako estatuetakotatik etorriak.

Eta, azkenik, jatorriaren datua 3 aldaera funtsezkoekin gurutzatu dugu:

- Sexua
- Adina
- Iritsi diren urtea

### 3.2.1. VILLABONAKO BIZTANLERIAREN EGITURA OROKORRA

Elementu horien bitartez, lehenik talde nagusien arabera aztertuko dugu egitura orokorra, eta gero toki espezifikoen arabera. Bakoitzaren osaera ez ezik, haien arteko harremanak ere deskribatzen saiatuko gara.

#### 1.- Osaera, oro har, eta jatorriaren arabeko taldeak

2011ko Biztanleen Udal Erroldaren<sup>1</sup> arabera, Villabonan 5.833 lagun bizi dira. Haietatik 4.728 Euskal Herriko udalerrri batean jaiotakoak dira (%81,1), eta 1.105, berriz, munduko beste herri eta estatuetoakoak dira (%18,9).

**3. Taula: Euskal Herrian eta hemendik kanpo jaiotakoaren bereizketa, Villabona (2011) eta Euskal Herria (2009) erkatuz.**

	Villabona jatorriak 2011	%	EH 2009	%
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.833</b>	<b>%100</b>	<b>3.005.000</b>	<b>%100</b>
Euskal Herrian jaiotakoak	4.728	%81,1	2.273.000	%75
Beste herrietan jaiotakoak	1.105	%18,9	778.000	%25

Beraz, Euskal Herritik kanpo jaiotakoak %6,9 gutxiago dira Villabonan, Euskal Herrian baino.

Era berean, oraingo biztanle kopurua kontuan hartuz gero, Gipuzkoan jaiotakoak gehiago dira Villabonan bertan eta/edo Euskal Herriko gainerako lurraldeetan eta munduko beste herrialde eta tokietan jaiotakoak baino.


<sup>1</sup> Espainiako Estatuko Estadistika Institutu Nazionalak aldiro gainbegiratu egiten ditu Euskal Herriko herrietan egindako udal erroldetako datuak. Gainbegiratze hori egin eta gero, 5.863 lagun ageri dira guztira Villabonako biztanleen Erroldan. Beraz, erakunde horren arabera, azterketa kuantitatibo honetan 2011ko urtarrilaren 1ean erabiltzen diren udal fitxategi jatorrizkoekin konparatuz gero, kopuru osoa baino 30 pertsoa gutxiago zenbatu ditugu, alegia, 5.833.

**4. Taula: Villabonan, Gipuzkoan, Euskal Herrian eta hemendik kanpo bizi diren villabonatarren arteko sailkapena 2011.**

<b>GUZTIRA</b>	<b>5.833</b>
Villabonan	1.634
Gipuzkoan	2.941
<b>EHko beste herrialdeetan</b>	<b>153</b>
<b>EHn GUZTIRA</b>	<b>4.728</b>
Beste jaioterrietan	1.105

Euskal Herritik kanpo jaio eta Villabonan bizi diren 1.100 gorako pertsonak multzokatzen baditugu Espainiako eta Frantziako estatuak ematen dizkieten eskubide estatusen arabera, 687 Espainiako eta Frantziako estatuetakoa herrietatik etorri dira, 133 Europar Batasuneko estatuetatik, eta 285 munduko beste herri eta herrialdeetatik helduak direla.

**6. Grafikoa: Villabonan eta beste tokietan jaiotako biztanleria 2011.**




Hau da, 2011. urtearen hasierako errolda datuen arabera, gaur egun ere Euskal Herritik kanpo jaio diren pertsonetatik, 10etik 6 Espainiako eta/edo Frantziako

estatuetatik etorriak dira, 1 Europar Batasuneko estatu eta/edo herrialde batetik etorri da, eta 3 munduko beste herrialdeetatik iritsi dira.

Hona hemen, grafiko batean islaturik, Villabonako 2011ko biztanleriaren 4 talde nagusiak, jatorriaren arabera.

### 7. Grafikoa: Villabonako biztanleria 4 segmentuen arabera 2011



Jatorriaren araberako ehuneko horiek konparatzen baditugu Gipuzkoa osokoekin eta Euskal Herrikoekin, ikusten da Villabonan handiagoa dela Villabonan bertan edo Euskal Herrian jaiotakoen portzentajea (%81), Gipuzkoa osoan baino, eta sei puntu handiagoa Euskal Herri osoan baino. Espainiar eta Frantziar estatuetatik etorritakoen portzentaia baxuagoa da Villabonan Gipuzkoan eta Euskal Herrian baino. Europar Batasunean (%2) edo munduko beste toki batzuetan jaiotakoen (%5) ehunekoak, berriz, berdinak dira Villabonan, Gipuzkoan eta Euskal Herrian.

**5. Taula: Jaiotze segmentuen kopuruak Villabona, Gipuzkoa eta EH erkatuz.**

<b>JAI OAK/BIZILEKUA 2009-2011</b>	Villabonan- 2011	Gipuzkoan- 2009	Euskal Herrian- 2009
Euskal Herrian	%81	%77	%75
Espain-Frantz Estatuetan	%12	%16	%18
Europar Batasunean	%2	%2	%2
Munduko beste herrietan	%5	%5	%5

Era berean, ikus dezakegu oraingo biztanleen artean gehiago direla Gipuzkoan edo/eta Euskal Herriko beste herrialdeetan jaiotakoak, Villabonan jaiotakoak eta munduko beste herrialde eta toki batzuetan jaiotakoak baino.

**6. Taula: Villabonako biztanleria osoa segmentuaren arabera banatua 2011.**

<b>GUZTIRA</b>	<b>5.833</b>	<b>%100</b>
Villabonan	1.634	%28
<b>EHko beste herrialdeetan</b>	<b>3.094</b>	<b>%53</b>
Espainiako-Frantziako Estatuetan	687	%11,8
Europa Batasunean	133	%2,3
Munduko beste herrietan	285	%4,9

Espainiako eta Frantziako estatuetan, Europar Batasunean eta munduko beste herrialdeetan jaiotakoei dagokienez, eta Gipuzkoako beste udalerrri batzuekin konparatuz gero, Villabona (%19) herri hauen atzetik dago: Irun, Lasarte-Oria, Errenteria, Zumarraga, Urretxu, Pasaia, Andoain, Astigarraga, Urnieta, Arrasate, Donostia eta Eibar. Udalerrri horietan guztietan, bai historian eta bai gaur egun, immigrazio handia izan da eta immigrante asko jarri da bertan bizitzen; hala, Euskal Herritik kanpo jaiotakoen ehunekoak Irungo %35etik Eibarko %25era doaz, mailakaturik.

Bestalde, Villabona, Tolosaldeako<sup>2</sup> herrialdeekin erkatuz gero, azken hamarraldian Europar Batasunetik eta munduko beste lurraldeetatik etorritakoen portzentaje eta joarekin bat egiten duela ikus daiteke. Tolosaldeako 28 udalerrietatik, Villabona da jatorri hauetako pertsonak gehien dituen seigarren udalerrria. Jaiotako lurraldeei dagokionez, Tolosaldean,


<sup>2</sup> Datu hauek Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Sailean aurki daitezke.

Villabonan bezala, Europar Batasunetik etorritako biztanleak Portugal eta Errumaniatik etorritakoak dira nagusi eta munduko beste lurraldeei dagokionez, Maroko, Ukraina eta Nikaragua ditugu.

## 2.- Sexua

Datuon arabera, Villabonako biztanleen artean, nahiz eta sexuen artean oreka egon, emakumeen aldera makurtuxeagoa da. Nolanahi ere, agerian geratu da Villabonan feminizazio portzentajea txikixeagoa dela.

**8. Grafikoa: Villabonako biztanleria orokorra sexuaren arabera.**



**7. Taula: Villabonako biztanleria orokorra sexuaren arabera.**


2011	Guztira	%	Emakumeak	%	Gizonak	%
Villabona	5.833	100	2.899	49,7	2.934	50,3

Alde hori azaldu ahal izateko, ezinbestekoa da datuak jatorriaren arabera taldeetan antolatzea. Modu honetan ikus daiteke, Euskal Herrian, Espainiar eta Frantziar estatuetan, zein munduko beste lurraldeetatik etorritako pertsonen artean nahiko orekatuta daukatela sexuaren banaketa. Europar Batasunetik etorritakoak berriz, gehiago dira gizonezkoak (0,5 puntu) emakumezkoak baino, eta horrek eramaten du txikia bada ere, diferentzia egotea bi sexuen artean.

**8. Taula: Villabonako biztanleak, jatorriaren eta sexuaren arabera.**

VILLABONA 2011	Guztira	Emakumeak %	Gizonak %
<b>Guztira</b>	5.833	49,7	50,3
Villabonan eta Euskal Herrian jaioak	4.728	40,4	40,6
Espainiako eta Frantziako estatuetan	687	5,9	5,8
Europar Batasunean	133	0,9	1,4
Munduko beste lurraldeak	285	2,4	2,5

**9. Grafikoa: Villabonako biztanleria sexu eta jaiotze segmentuaren arabera.**




Grafikoan ikus daitekeen bezalaxe, nahiz eta diferentzia oso eskasa izan, esan behar da, Espainiar eta Frantziar estatuetatik etorritako pertsonen artean osatzen dutela feminizazio portzentairik altuena (0,1eko diferentzia).

### 3.- Adinak

Adinaren arabera, azken hamarraldietako zahartze tasa handia jaisten ari da, poliki-poliki, Villabonako biztanleen artean ere, Gipuzkoan eta Euskal Herrian bezala. Zahartze tasa hori, besteak beste, arriskuan jartzen ari zen belaunaldien arteko ordezkatzeari, horrek esan nahi duen guztiarekin.

Hala eta guztiz ere, landutako Villabonako erroldako datuen arabera, agerian geratu da 0-30 urte bitartekoen eta 60 urtetik gorakoen multzoak erkatzen baditugu, ehunekoetan 7,9 puntu gorago daudela gazteagoen multzoak zaharrenek baino; hau da, 463 lagun gehiago dira. Honekin batera, ezin dugu alde batean utzi 31-45 urte bitarteko biztanleak, hauek baitira une honetan Villabonako biztanle osoen ia erdia osatzen dutenak. Ondorioz, belaunaldien erreposizioa momentu honetan bermatuta geratzen dela esan daiteke.

**10. Grafikoa: Villabonako biztanleria osoa adinaren arabera.**



Adin tartekak gehiago aztertzen baditugu, esan behar da 31-45 urte tartekak osatzen dutenak direla kopuru handien dutenak (%26,1). Honi jarraituz, 46-60 urte tartekoak ditugu (%20,7), 61-75 urte tartekak (%14,7), 16-30 (%14,2), 0-15 (%16,4) eta azkenik, 75 urtetik gorako biztanleak (%8,0).

**9.Taula: Villabonako biztanleria adin tartearen arabera.**


Villabona 2011	0 - 15	16 - 30	31 - 45	46 - 60	61 - 75	75<	Guztira
<b>Guztira (absolutu)</b>	956	829	1.521	1.205	856	466	5.833
<b>Guztira (%)</b>	16,4%	14,2%	26,1%	20,7%	14,7%	8,0%	100,00%

Villabonan 2011n erroldatutako biztanleen adinaren araberako egitura gurutzatzen badugu haien jatorriarekin, agerian gelditzen da Europar Batasunetik eta munduko beste herrialdeetatik etorritakoek ere eragiten dutela biztanleria gaztetzean. Gauzak oso bestela dira Villabonan bertan eta Euskal Herrian jaiotakoaren artean eta, batez ere, Espainiako eta Frantziako estatuetakoko herrietan jaiotakoaren artean.

**10. Taula: Villabonako biztanleria adin tarte eta jatorri segmentuaren arabera (%).**

Villabona 2011	0 - 15	16 - 30	31 - 45	46 - 60	61 - 75	75gehio	Guztira
<b>Guztira</b>	<b>16,4%</b>	<b>14,2%</b>	<b>26,1%</b>	<b>20,7%</b>	<b>14,7%</b>	<b>8,0%</b>	<b>100,00%</b>
Euskal Herria	15,1%	12,0%	21,6%	15,9%	10,1%	6,3%	81,1%
Espa.Fran. estatuak	0,2%	0,4%	1,5%	3,8%	4,3%	1,6%	11,8%
Europar Batasuna	0,2%	0,7%	0,7%	0,5%	0,2%	0,0%	2,3%
Munduko beste herriak	1,0%	1,1%	2,3%	0,4%	0,1%	0,0%	4,9%

**11. Grafikoa: Villabonako biztanleriaren sailkapena adin eta jaiotze segmentuen arabera.**



Hona hemen adinaren arabera banaketa, zenbaki absolutuetan, jatorria kontuan harturik.

**11. Taula: Villabonako biztanleria adin tarte eta jatorri segmentuaren arabera (zenbaki absolutuetan).**

Villabona 2011	0 - 15	16 - 30	31 - 45	46 - 60	61 - 75	75gehio	Guztira
<b>Guztira</b>	<b>956</b>	<b>829</b>	<b>1.521</b>	<b>1205</b>	<b>856</b>	<b>466</b>	<b>5.833</b>
Euskal Herria	879	701	1259	930	589	370	4.728
Espa.Fran. estatuak	10	22	87	224	250	94	687
Europar Batasuna	10	40	43	29	9	2	133
Munduko beste herriak	57	66	132	22	8	0	285

Hori guztia are argiago ageri da kontuan hartzen badugu adin tarte bakoitzean zein den ehuneko jatorri multzo bakoitzean. Hala, bi muturrak azpimarratu behar dira: batetik, Espainiako eta Frantziako estatuetatik iritsitako biztanle multzoa oso zahartua dago, %82 baino gehiago 46tik gorakoak baitira; bestetik, munduko beste herrialdeetatik iritsitako biztanle multzoa oso gaztea da, ia %90 46 urtetik beherakoak baitira. Era berean, nabarmena da adin produktiboko aurreneko adin tartekoen kopurua hazten (%30) ari dela Europar Batasuneko estatu eta herrialdeetatik iritsitakoen artean.

**12. Taula. Villabonako biztanleen adina ehunekoetan, jatorriaren arabera**

Villabona 2011	Guztira	0 - 15	16 - 30	31 - 45	46 - 60	61 - 75	75gehio
<b>Guztira</b>	<b>100,0%</b>	<b>16,4%</b>	<b>14,2%</b>	<b>26,1%</b>	<b>20,7%</b>	<b>14,7%</b>	<b>8,0%</b>
Euskal Herria	100,0%	18,6%	14,8%	26,6%	19,7%	12,5%	7,8%
Espa.Fran. Estatuak	100,0%	1,5%	3,2%	12,7%	32,6%	36,4%	13,7%
Europar Batasuna	100,0%	7,5%	30,1%	32,3%	21,8%	6,8%	1,5%
Munduko beste herriak	100,0%	20,0%	23,2%	46,3%	7,7%	2,8%	0,0%

Honekin batera, Espainiar eta Frantziar estatuetan jaiotako pertsonen artean, esanguratsua da 0-15 urte bitarteko gazteen kopurua. Izan ere, orokorrean, egungo immigrazioa Europar Batasunetik edota munduko beste lurraldeetatik etorritako pertsonengan jartzen da begirada, baina taula honetan ikus daitekeen bezalaxe, pixkanaka segmentu honetako reposizio bat ematen ari da. Isla hau ere hezkuntza sistemako alorrean ikus daiteke matrikulazioen atalean.

Villabonako biztanleen hiru elementu horiek berretsi egiten dituzte Gipuzkoan eta, batez ere, Hego Euskal Herrian ageri diren zenbait joera orokor. Hain zuzen, joera horiek eragin zuzena dute arlo ekonomikoetan, sozialetan, politikoetan eta kulturaletan, bai gure udalerrietan eta bai Euskal Herri guztian:

1) Biztanleria gaztea hazten ari da poliki-poliki, eta biztanleria heldua urritzen. Halaxe ikusten da adinen grafikoan, Villabonan jaiotako gehienak 16 eta 60 urte bitartekoen multzoetan baitaude: 10 lagunetik 6. Joera hori ikusirik, eta Hego Euskal Herriko eta Gipuzkoako adin multzo hori azterturik, zenbait ondorio atera daitezke:

- Bizi-itxaropena handitzeak berekin dakar pentsioak eta zerbitzu sozialak jasotzen dituzten biztanle adindu erretiratuen kopurua handitzea. Hori orekatzen ari da, adin aktibo eta produktiboan daudenen multzoa handitzen ari delako pixkanaka. Era berean, demografikoki orekatzeko lagungarria da gazteena eta ez-aktiboa den multzoa handituz joatea, baina multzo horretakoek eskola eta gizarte zerbitzuak behar izaten dituzte.

- Belaunaldiak ordezkatzeko logika hori lausoturik dago, emigrazioa handitu egin delako, batez ere gazte multzo produktiboetan eta prestakuntza ertain eta handia daukatenen artean, moldaketa tekno- produktiboaren eta langabeziaren ondorioz, prestakuntzaren araberako aukera faltaren ondorioz, etxeen garestitzearen ondorioz eta abar. Joera hori areagotuz joan daiteke oraingo krisiagatik, kapital transnazionalaren moldaketagatik eta azken hamarraldietan bildutako kapital sozialaren galeragatik; izan ere, horixe ekarri du kapitalari laguntzeko Espainiako eta Frantziako estatuetako gobernu sozialdemokrata eta kontserbadoreek egindako politikak.

2) Espainiako eta Frantziako estatuetatik Villabonara iritsitako biztanle multzoa izugarri zahartzen ari da, eta hori zuzenki proportzionala da talde horretako multzo gazteagoen jaitsierarekin. Hala, 46 urtetik gorakoak dira 10 lagunetik 8, eta 30 urtetik beherakoak ez dira 10etik 2

ere. Villabonako joera demografiko hori bera ikusten da Gipuzkoan eta Hego Euskal Herrian, eta horrek baditu ondorio batzuk:

- 50eko eta 60ko industrializazio prozesuarekin batera Frantziako Estatutik eta, batez ere, Espainiako Estatutik etorritako biztanleak beren bizi-zikloa betetzen ari dira. Orain ere iristen dira migranteak herrialde horietatik, bai adin aktiboan daudenak eta bai adin inaktiboan daudenak, baina nabaria da ez direla lehengoak ordezkatzeko adina.

- Dena dela, erretiro adinean dauden migrante horiek ez dira beren herrialde eta jatorrira itzultzen ari (ez behin betiko, behintzat), eta Villabonako eta Euskal Herriko biztanle izaten segitzen dute, familia bertan sustraiturik daukatelako edo zerbitzu publikoak hobek eta gehiago direlako. Bestetik, litekeena da Villabonan ere, Hego Euskal Herri guztian bezala, talde horretako gazteenek eta aktibitate adinean daudenek migrazioa jotzea Villabonan eta Euskal Herrian jaiotakoen arrazoi berberengatik.


3) Azkenik, Gipuzkoan eta Euskal Herrian gertatzen den bezala, Villabonako biztanleen artean handitzen ari da Europar Batasuneko estatu eta herrialdeetan jaiotakoen kopurua; horietatik asko (%62,4) adin aktiboko lehen multzoan daude, hau da, 16 eta 40 urte bitartekoak dira. Dena dela, biztanle multzo horren ezaugarriak asko aldatzen dira jatorri bat izan edo beste bat izan, heziketari, lanari, kulturari eta abarrei dagokienez. Bestalde, oso esanguratsua da ere munduko beste lurraldeetatik etorritako pertsonen adin tarteari erreparatuz gero atera ditzakegun ondorioak. Alde batetik; adin aktiboko lehen multzoan dauden pertsonen multzoa (16-40 urte) ia %70ekoa da, hau da, beste segmentuak baino altuagoa, adin tarte handiena 31-45ekoa izanik (%46,3). Bestetik, azpimarragarria da 0-16 urte bitarteko gazteek osatzen duten kopurua (%20), hau ere beste segmentuak baino altuagoa izanik. Honek, Villabonan, segmentu honetako familia berrelkartze prozesu garrantzitsu bat egon dela esan nahi du, ondorioz, beste jatorri eta hizkuntzaz osatutako villabonatar familien argazki orokor bat osatuz.

#### 4. Villabonara beste jatorrietatik iritsitakoak azken mendean epeka.

Azterketa orokorrari buruzko aurreko atalean ikusi dugun bezala, 2011. urtearen hasieran Villabonan erroldatutako pertsona guztietatik %28 dira udalerrian bertan jaiotakoak. Udalerritik kanpo baina Euskal Herriko beste udalerritatean jaiotakoak %53 dira, eta, azkenik, Villabonatik eta Euskal Herriatik kanpo jaiotakoak %19 dira.

Grafikoan ikusten den bezala, batez ere 70 eta 90eko hamarraldietan eta 2000ko urteen ondorengo azken hamarraldian iritsi da Villabonara pertsona gehien. Bertan jaiotakoak ez diren oraingo villabonarren %50 baino gehiago, hiru hamarraldi horietan heldu ziren. 70eko hamarraldian etorrera ez zen eten, baina apaldu bai; 80ko urteetan, %3 jaitsi zen iritsitakoaren kopurua, eta 90eko urteetan berriz handitzen hasi zen.


#### 12. Grafikoa: Villabonatik kanpo jaiotakoaren etorrerak hamarkaden arabera



Azken hamarraldian Gipuzkoan eta Villabonan izan den garapenari erreparatuz gero, Villabonak bere dinamika propioa izan duela esan dezakezu. 2001. urtean biek beherakada bat izan arren, Gipuzkoan bi hazkunde nagusi egon dira: bata 2002an eta bestea 2008an. Villabonan berriz, gorakada nagusia beranduxeago iritsi zen, 2004an hain zuzen, eta urte horretan zehar eman zen jaitsieraren ondoren, ondorengo urteetan poliki-poliki handitzen joan dira etorrerak.

Gipuzkoan, 2002. urte ondoren, 2007tik 2008ra eman da gorakada handiena. Hala eta guztiz ere, krisi ekonomikoaren lehen urratsekin batera, izugarrizko beherakada eman da ondorengo urteetan.

### 13.Grafikoa: Azken hamarkadako etorreren garapena Gipuzkoa eta Villabonan.



Ondorengo taulan, Gipuzkoa eta Villabonan azken hamarkadan egondako batez besteko diferentziak ikusiko dira:

### 13. Taula: Gipuzkoa eta Villabonako etorreren batez besteko saldoa.

<b>Guztira</b>	Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	Villabona
<b>2000</b>	2.095	<b>2000</b>	88
<b>2001</b>	699	<b>2001</b>	24
<b>2002</b>	<b>2.908</b>	<b>2002</b>	29
<b>2003</b>	1.439	<b>2003</b>	46
<b>2004</b>	2.097	<b>2004</b>	<b>112</b>
<b>2005</b>	2.195	<b>2005</b>	3
<b>2006</b>	3.187	<b>2006</b>	<b>-4</b>
<b>2007</b>	3.049	<b>2007</b>	9
<b>2008</b>	<b>6.112</b>	<b>2008</b>	10
<b>2009</b>	4.642	<b>2009</b>	23
<b>2010</b>	1.565	<b>2010</b>	39
<b>2011</b>	daturik ez	<b>2011</b>	11

Azken hamarraldian Villabonara Euskal Herritik kanpotik etorri diren pertsonen datuak hauek dira:

#### 14. Taula: Azken hamarkadako etorrerak Villabonara EHtik kanpokoak

Villabona 2011	2001-2011
<b>EHTik kanpo guztira</b>	<b>535</b>
Espainia eta Frantziar estatuak	147
Europar Batasuna	114
Munduko beste lurraldeak	274

Beraz, Villabonako datuetan agerian geratzen da Euskal Herriaz kanpotik 2000ko hamarraldian heldutako 10 lagunetik 5 munduko beste lurralde batean jaiok dira, ia 3 Espainiako edo Frantziako estatuetatik etorri direla eta 2 Europar Batasuneko estatuetatik.

Dena dela, beste jatorri batzuetakoak zenbait hamarralditan Villabonara iristeko izandako prozesuari dagokionez, dinamikak aldatu egiten dira jatorriaren araberrako taldeen artean:

1) Alde batetik, XX. mendearen bigarren erdialdean Hego Euskal Herrian<sup>3</sup> izaniko berrindustrializazio prozesuaren ondorioz, biztanle kopuru handia heldu zen industrializatu gabeko beste herri batzuetatik eta Gipuzkoako landa inguruetatik eta, neurri txikiago batean, Nafarroa Garaitik. Biztanle horietatik gehienak euskaldunak ziren, eta proletarizatzerara behartuak; 50eko urteak baino lehenago hasi ziren iristen, baina batez ere 60ko eta 70eko hamarraldietan etorri ziren.

#### 15. Taula: Azken mendean Euskal Herritik Villabonara etorritakoen garapena.

Villabona 2011	1931 lehen	1931-1940	1941-1950	1951-1960	1961-1970	1971 - 1980	1981 - 1990	1991 - 2000	2001 - 2011	Guztira
<b>Guztira</b>	<b>0,1%</b>	<b>0,2%</b>	<b>0,5%</b>	<b>3,3%</b>	<b>7,6%</b>	<b>11,8%</b>	<b>9,0%</b>	<b>11,9%</b>	<b>27,6%</b>	<b>100,0%</b>
EHko beste udalerrietan jaiok %	%0,2	%0,4	%0,8	%5,0	%10,3	%16,3	%13,0	%19,3	%34,6	%100

<sup>3</sup> Ipar Euskal Herrian eta, batez ere, Lapurdin migrazio prozesu horrek zerikusia izan zuen turistifikatze prozesuarekin; Lapurdiko herri eta baserrietako pertsonak ez ezik, Nafarroa Beherekoak eta Zuberoakoak ere erakarri zituen prozesu horrek.

Euskal Herriko beste toki batzuetatik Villabonara iritsitako enbtorrerak mailakako hazkunde neurritsu izan du. Eten bakarra izan du: jaitsiera handi bat izan zuen 70eko urteetako krisiaren ondorioz eta, batez ere, 80ko urteetako desindustrializazioaren eta ekoizpen berregituraketaren ondorioz. Hain zuzen ere, 90eko eta 2000ko hamarraldietan iritsi ziren Gipuzkoako beste herri batzuetatik eta Euskal Herriatik iritsitako biztanle guztien %50.

2) Euskal Herriko beste leku batzuetan jaiotako pertsona horiek 50eko eta 60ko hamarraldietan Villabonan bizitzen jarri zirenean, bat egin zuten Espainiako Estatuko herrietatik iritsitako migrante ugariekin, haiek ere beharturik baitzeuden, beren jaioterri orduan urrunetik alde egitera ez ezik, proletarizatzerara ere. Hain zuzen, Espainiako Estatuko herrialde edo toki batetik Villabonara iritsitako biztanle guztietatik %44 dira 60 eta 70eko hamarraldietan etorritakoak.

**16. Taula: Azken mendean Espainiar estatutik Villabonara etorritako en garapena.**

Villabona 2011	1931 lehen	1931-1940	1941-1950	1951-1960	1961-1970	1971 - 1980	1981 - 1990	1991 - 2000	2001 - 2011	Guztira
<b>Guztira</b>	<b>0,1%</b>	<b>0,2%</b>	<b>0,5%</b>	<b>3,3%</b>	<b>7,6%</b>	<b>11,8%</b>	<b>9,0%</b>	<b>11,9%</b>	<b>27,6%</b>	<b>100,0%</b>
Esp.Fran Estatuetatik etorriak	%0,1	%0,3	%0,3	%5,5	%17,9	%26,1	%16,9	%11,5	%21,4	%100

Dena dela, taulan ikus daitekeen bezala, Villabonako biztanle talde horren dinamika aldatu egin da 80ko hamarraldiaz geroztik; izan ere, atzerakada handi bat gertatu zen, eta are handiagoa egin zen 90eko urteetako berregituraketaren ondorioz. Nolanahi ere, bestela pentsatu izan den arren, migrante mota horrek etortzen segitu du, eta, gainera, badirudi hazkunde txiki bat izan duela 90eko urteez geroztik, eta orain ere hazten segitzen duela. Hala, Euskal Herriaz kanpotik iritsitako en %43 Extremaduratik eta Gaztela eta Leondik helduak izan dira. Kontua da orain, aurreko ataletan aipaturiko zenbait arrazoi direla medio, ikusezin bihurtuak direla.


3) Azkenik, taulako errolda datuetan argi ikusten da Europar Batasuneko beste herrialde eta estatu batzuetatik eta, batez ere, munduko beste herrialdeetatik iristen ari direla etorkinak, 90eko hamarraldiaz geroztik Euskal Herri guztian, eta

azken hamarraldiaz geroztik Villabonan. Hain zuzen ere, lehen multzokoen ia %86 eta bigarren multzokoen %96 baino gehiago 2000ko hamarraldian iritsi eta erroldatu dira. Nolanahi ere, bi multzo horien bilakabidea desberdina da, bakoitzaren osaeratik ez ezik ("berritasuna", "kopurua", kulturak eta hizkuntzak, fenotipiak, koalifikazioak eta abar), baita estatuen estrategia juridiko-politikoengatik ere, eta batez ere horiengatik.

**17. Taula: Azken mendean EB eta munduko beste lurraldeetatik Villabonara etorritakoen garapena.**

Villabona 2011	1931 lehen	1931-1940	1941-1950	1951-1960	1961-1970	1971 - 1980	1981 - 1990	1991 - 2000	2001 - 2011	Guztira
<b>Guztira</b>	<b>0,1%</b>	<b>0,2%</b>	<b>0,5%</b>	<b>3,3%</b>	<b>7,6%</b>	<b>11,8%</b>	<b>9,0%</b>	<b>11,9%</b>	<b>27,6%</b>	<b>100,0%</b>
EBtik etorriak	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,8	%1,5	%3,8	%8,3	%85,7	%100
Munduko beste lurraldeetatik etorriak	%0,0	%0,4	%0,0	%0,0	%0,0	%0,4	%1,1	%2,1	%96,1	%100

**14. Grafikoa: 1931tik 2011ra Villabonara etorritakoen garapena, jatorri segmentuaren arabera.**



Bukatzeko, garrantzitsua da gogoan izatea jatorri multzo horietako bakoitzean ere aniztasun handia dagoela, eta Espainiako eta Frantziako estatuek pertzepzio jakin bat zabaldu dutela gai honen inguruan, baita Euskal Herrian eta Villabonan ere. Europar Batasunetik etorritakoak "atzerritar" hutsak dira, eskaera edo behar espezifikorik gabeak, antza, eta, beraz, ia ikusezinak; munduko beste toki batzuetatik etorritakoei, berriz, "immigrante atzerritar" etiketa jartzen diete. "Objektu" kategoria dramatiko horrek, ikuspegi horrek hiper-ikusgai egiten ditu, eta zuribidea ematen die estatu horien baztertze, kontrol eta segurtasun politikei. Beste aldean dago gure "babes" eta "karitate" berdinzalea, ustez asmo onekoa, edo gure ustezko "folklorismo" interkulturalista.

### **3.2.2. VILLABONATARREN BANAKETA ESPEZIFIKOA**

Villabonako biztanleen errolda estatistikaren osaketari eta banaketari buruzko ikuspegi ahalik eta osoena izateko, eta, behin aztertuta zein diren segmentu handiei dagozkien joera demografikoak, adierazlerik garrantzitsuenak deskribatuko ditugu, herrialdearen eta estatuaren arabera. Ezinbestekoa da halako zehaztapen bat egitea, handia baita segmentu bakoitzaren barruko herrialde eta/edo estatuaren aniztasuna, eta soslai desberdinak ageri baitituzte sexuaren, adinaren eta etorritako urtearen arabera. Horretarako, segmentu bakoitzeko jatorriari —herrialdeari zein estatuari— buruzko analisi kuantitatibo bat aurkeztuko dugu.


Baina horietan aintzat hartutakoen desagregazioa deskribatzen hasi aurretik, eta, gaur egun bizilekua Villabonan duten herritarrak kontuan izanik, aniztasunaren mapa ezinago aberatsa eta berria aurkituko dugu; baina, aldi berean, konplexua eta aldakorra.

#### **1.- Aniztasunaren mapa, jaioterriaren arabera.**

Gaur egun, villabonatarren jatorriaren arabera, honako errealitate hau ageri digu Villabonako aniztasunaren mapak: 50 jatorritik gorako biztanleak dira; eta komunitate espazioetan, esate baterako, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta beste 20 hizkuntzatan baino gehiagotan hitz egiten dute.

Oso denbora gutxian hedatu da aniztasun halakoa, eta berebiziko erronka bati aurre egin beharra ekarri die herrian orain arte zeuden eragile guztiei —dena delako eremuetakoei: sindikatu, gizarte, politika, erakunde, kultura eta hizkuntza taldeetakoiei—, bai eta aurreko hamarraldietan zein une honetan Villabonan kokatu diren pertsoneri eta elkarteei ere.

## 15. Grafikoa: Villabonako jatorri aniztasun mapa.



Egia da aniztasun handi horrek garrantzi jakin bat duela, oraindik ere, baina ezin neurtuzkoa da, oraingoz. Horregatik, proiektu honen bitartez, abantailatzat hartzea proposatzen dugu, esku hartzeko modu bat aukeratzeko ahalbide egokitzat; ez dugu hartu behar herri eta herrialde gisa dagokigun errealitate jakinerako eragozpen eta arazotzat, baizik eta guztiontzako baliabide onuragarritzat.

### 2.- Villabonan eta Euskal Herrian jaiotakoen banaketa.

Orain arte esan bezala, Euskal Herrian jaiotako biztanle villabonatarretatik, Villabonan bertan jaiotakoak %28 dira; oso handia da, ordea, Euskal Herriko beste lurraldeetako udalerrri batzuetatik etorritako jendearen ehunekoa ere (%53).

Ondorengo taulan, Euskal Herritik etorritakoen sailkapena ikusiko dugu lurraldeka banatuta:

**17. Taula: Euskal Herritik Villabonara etorritako pertsonak lurraldeka banatuta eta herritar guztiekiko portzentajeak adierazita.**

Villabona 2011	Guztira	Euskal Herriko biztanleekiko %	Gipuzkoa kenduta, EHko beste lurraldeekiko %	Villabonako herritar guztiekiko%
<b>Villabonan guztira</b>	<b>5833</b>	<b>%81,1</b>	<b>%2,6 (Villbonarrekiko)</b>	<b>%100</b>
Villabonan jaiok	1634	%34,6	-	%28
Gipuzkoako beste herrietan	2941	%62,2	-	%50,4
<b>EHn guztira</b>	<b>4728</b>	<b>%100</b>	<b>EH – Gipuzkoa: 153</b>	<b>%81,1</b>
Araba	17	%0,35	%11	%0,3
Bizkaia	44	%0,9	%29	%0,8
Gipuzkoa	4575	%96,7	-	%78,4
Lapurdi	3	%0,06	%2	%0,1
Nafarroa Garaia	89	%1,9	%58	%1,5


Taulan ikustenenez, beste udalerrri batzuetatik etorritakoen taldean, Euskal Herri osoko lurralde guztietatik etorri dira, Zubero eta Behe Nafarroatik izan ezik.

**16. Grafikoa: EHko beste lurraldeetatik etorritakoen arteko portzentajea  
(Gipuzkoa ezik)**




Beraz, Villabonako biztanleen artean, Gipuzkoako lurraldean jaiotakoek dute presentziarik handiena, %97 baitira. Hurrengo, Nafarroa Garaitik etorritakoak daude (%58). Horien atzetik daude Bizkaitik (%29), Arabatik (%11) eta urrutiago, Lapurditik (%2) etorritakoak.

**17. Grafikoa: Euskal Herrian jaio direnen arteko bereizketa Gipuzkoa eta beste guztien artean.**




Etorritako herrialdeei erreparatuz gero, kontutan izaik Gipuzkoarrek osatzen dutela kopuru nagusiena, Gipuzkoako hiriburuak osatzen du jatorrizko udalerririk handiena.

**20. Grafikoa: Gipuzkoako udalerrien banaketa.**



Bestalde, orokorrean, Euskal Herritik etorritakoen udalerririk nagusiak hauek izango dira:

**21. Grafikoa: Euskal Herritik etorritakoen udalerririk nagusiak.**




**Sexuaren ikuspegitik**, orokorrean Euskal Herrian jaiotako villabonatarrek nahiko orekatuta daudela esan daiteke: emakumezkoak (%40,4) eta gizonezkoak (40,6). Gipuzkoan jaiotakoen artean ere nahiko orekatuta egon arren (%49,7 emakume eta %50,3 gizon), Euskal Herriko beste herrietatik etorritakoen artean oreka emakumeen (%55,5) alde puskatu egiten da. Lurraldeka, Bizkaian jaiotakoak soilik dira gizonak gehiago.

**18. Taula: Euskal Herrian jaiotakoak sexu eta lurraldearen arabera.**

Villabona 2011	Guztira	%	Emakumeak	%	Gizonak	%
Villabona	5833	%100	2899	%49,7	2934	%50,3
<b>EH</b>	<b>4728</b>	<b>%100</b>	<b>2358</b>	<b>%40,4</b>	<b>2370</b>	<b>%40,6</b>
Gipuzkoa	4575	%100	2273	%49,7	2302	%50,3
<b>EH beste</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>	<b>85</b>	<b>%55,5</b>	<b>68</b>	<b>%44,5</b>
Araba	17	%100	9	%53	8	%47
Bizkaia	44	%100	21	%48	23	%52
Lapurdi	3	%100	2	%70	1	%30
Nafarroa Garaia	89	%100	53	%59,5	36	%40,5

Adinaren arabera, gehienbat adin tarte aktiboan pilatzen dira Euskal Herriko beste lurralde batzuetatik etorritako pertsonak, -batez ere Gipuzkoatik etorriak direnak-, helduaroan batik bat; gutxiago dira gazteak. Adin tarte handien eta txikiaren artean, oraindik ere, garrantzi handiagoa dute adin txikienekoek (nahiz eta Euskal Herriko beste lurraldeetatik etorriak direnak zahartzaroan nagusiak izan); aurreko datua kontuan izanik, beraz, oraindik agerikoa da lurraldetik etorritako biztanle multzo horren zahartzea.

### 18. Grafikoa. Euskal Herriko beste udalerrri batzuetan jaiotako adin tarteen arabera



Lurraldeka, ikusten denez, Gipuzkoatik etorritako biztanleen bolumenak eta banaketak markatzen du aurreko guztizkoen banaketa. Hala ere, nabarmendu beharra dago zahartze handia ageri duela, batez ere, Nafarroa Garaitik etorritako multzoak; zahartze joera horretan, Bizkaitik eta Arabatik etorritakoak daude hurrengo. Beste muturrean, nabarmentzekoa da adin tarte gazteeneko pertsonen presentzia handia dutela batez ere Villabonan bertan jaiotakoenen artean.


### 19. Taula. Euskal Herrian eta Villabonan jaiotako adin tartekak.

	Guztira	%	0-15	%	16-30	%	31-45	%	46-60	%	61-75	%	75<	%
<b>EH</b>	<b>4728</b>	<b>100</b>	<b>879</b>	<b>18</b>	<b>701</b>	<b>15</b>	<b>1259</b>	<b>27</b>	<b>930</b>	<b>20</b>	<b>589</b>	<b>12</b>	<b>370</b>	<b>8</b>
Gip	4575	100	873	19	691	15	1215	27	897	20	552	12	347	7
Vill	1634	100	685	42	397	24	56	4	168	10	180	11	148	9
Ara	17	100	3	18	1	6	5	29	3	18	2	12	3	17
Biz	44	100	1	2	5	11	17	39	11	25	8	18	2	5
La p	3	100	0	0	0	0	2	67	0	0	1	33	0	0
Naf	89	100	2	2	4	4	20	23	19	21	26	29	18	20

Villabonara etorri zireneko datari dagokionez, honela banatuta daude Euskal Herriko beste lurralde bateko udalerrri batean jaiotakotzat jasota dituzten

pertsonak. Grafikoan ikusten denez, Gipuzkoatik, 50. urtetik hasita etorrera nabari den bezalaxe, Euskal Herriko beste lurraldeetatik beranduxeago hasi ziren nabarmentzen; baina, ezbairik gabe, 90eko urteetan eta, batez ere, 2000ko hamarraldian etorri zen jende saldorik handiena: kopuru guztiaren %51.

**19. Grafikoa: Euskal Herriko beste udalerrietatik etorritako biztanleak azken mendean.**




Etorkinen lurraldearen arabera, badira nabarmendu beharreko hainbat ezaugarri. Barne-migrazioari dagokionez, oso garrantzitsuak izan ziren 50eko eta 70eko urteak, orduan izan baitzen etorrera gehien nabaritzen hasi zen garaia. Orokorrean, Gipuzkoako beste herri batzuetatik etorri zirenak garrantzitsuagoak izan arren, 90ko urteetan eta 2000ko hamarraldian Euskal Herriko beste udalerrietatik etorritakoak indartzen hasi ziren. Nafarroa Garaitik Villabonara etorritakoen artean —horiexek osatzen dute Euskal Herriko beste lurralderen batetik etorritako pertsona talderik jendetsuenetan bigarrena—, horien etorrera, batez ere, joan den mendeko 60tik ematen hasi zen.

### 3.- Jatorriz Espainiako eta Frantziako estatuetakoa diren pertsonak.

Espainiako eta Frantziako zenbait herrialdetatik eta eskualdetatik etorritako pertsonen multzoa, guztira, 687 lagunekoa da; 2011n Villabonan erroldatutako guztien %11,8 dira, eta Euskal Herritik kanpo jaiotakoen %62.

Bi estatu horien administraziopeko 19 herrialde eta eskualdetatik etorritakoak dira pertsona horiek<sup>4</sup>. Extremaduran eta Gaztela eta Leonen jaiotakoak dira pertsonarik gehienak; bi eskualde horietakoak dira, hain zuzen, Espainiatik eta Frantziatik etorritako biztanle multzo guztiaren %70. Haien hurrengo daude, baina askoz ere urrunago, Galiziatik eta Andaluziatik etorritakoak: %8,5 eta %4,5, hurrenez hurren. Espainiako eta Frantziako estatuetatik guztira etorritakoen %83 dira Espainiako Estatuko lau eremu horietatik etorritakoak.

#### 22. Grafikoa: Espainiar eta Frantziar estatuetatik etorritakoak lurraldeka.



Bi estatu horietatik etorritako biztanle multzo horren kopuruan garrantzi handia dute bi eskualde horiek; nabarmentzekoa da, halaber, biztanle kontzentrazio

<sup>4</sup> Espainiako Estatuko jatorrikoei dagokienez, hango bi herrialdeak eta 11 eskualdeak izan ditugu kontuan; haren jurisdikzioko lau lurraldeak ez, jakina. Frantziako Estatuari dagokionez, aldiz, estatu horretako lurralde osoa hartu dugu kontuan, eskuera dugun informazioaren eta datu bolumenaren arabera; hiru lurralde euskaldunetakoak ez, jakina.

handia dagoela horietako probintzia jakin batzuetan. Extremaduratik etorritakoen artean, azpimarragarria da Caceres probintziatik etorritakoen portzentajea (Extremadura jatorria dutenen %71). Caceres eta Badajoz probintzietatik etorritakoak, horiek bakarrik, bi estatuetatik guztira etorritakoen %39 dira. Gaztela-Leondik, Salamancatik (78 pertsona), Burgostik (35), Valladolidetik (35) , Palentziatik (26), Zamora (12), Avila (10), Leon (8), Soria (6) eta Segovia (2) etorritakoak, berriz, ia % 31 dira.


Hurrengo, Galiziatik eta Andaluziatik etorritakoak dira gehienbat. Galiziatik (segmentu guzti honen %8,5), Lugo (22 pertsona), Ourense (14), Pontevedra (13) eta A Coruñatik (10) etorritakoak dira; eta Andaluziatik (segmentu guzti honen %4,5), esate baterako, Granadatik (8 pertsona), Kordobatik (7), Jaen (7), Malaga (5), Cadiz (3) eta Huelvatik (1).

**20. Taula: Espainiar eta Frantziar estatuetan jaiotako villabonatarren lurraldeak.**

Villabona 2011	Villabona Guztira	Villabona Guztiarekiko %	Bere segmentuko jatorriarekiko %
<b>Guztira</b>	<b>5833</b>	<b>%100</b>	<b>%100</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>%81,1</b>	<b>%100</b>
<b>Espa.Fran. Estatuak</b>	<b>687</b>	<b>%11,8</b>	<b>%100</b>
<b>Espainiar estatua</b>	<b>680</b>	<b>%11,7</b>	<b>%100</b>
Extremadura	269	%4,6	%39,5
Gaztela eta Leon	212	%3,6	%31
Galizia	59	%1,0	%8,5
Andaluzia	31	%0,5	%4,5
Madril	22	%0,4	%3,2
Errioxa	20	%0,3	%3
Gaztela-Mantxa	17	%0,3	%2,5
Aragoi	14	%0,2	%2,06
Kantabria	13	%0,2	%2
Herralde Katalanak	12	%0,2	%1,7
Asturias	10	%0,2	%1,4
Kanariak	1	%0,0	%0,1
<b>Frantziar estatua</b>	<b>7</b>	<b>%0,1</b>	<b>%100</b>
Arras Pas de Calais	1	%0,0	%14,3
Bagneres de Bigorre	1	%0,0	%14,3
Montpellier	1	%0,0	%14,3
Nievre	1	%0,0	%14,3
Paris	1	%0,0	%14,3
Uccle	1	%0,0	%14,3
Villeurbane	1	%0,0	%14,3

Probintzien ikuspuntutik, ondorengo grafiko honetan ikus daitezke segmentu honetako probintzia nagusiak.

### 23. Grafikoa: Espainiar estatuko villabonatarren probintzia nagusiak



Espainiako eta Frantziako estatuetatik, 19 herrialde eta eskualdetatik etorritakoak dira. Sexuaren ikuspegitik, nahiz eta nahiko orekatuta egon, horietatik gizon (%49,7) etorkinak baino gehiago dira emakume (%50,3) etorkinak.

### 21. Taula: Espainiar eta Frantziar estatuetaiko villabonatarren banaketa lurralde eta sexuaren arabera

Villabona 2011	Guztira	Emakumeak	%	Gizonak	%
<b>Guztira</b>	<b>5833</b>	<b>2899</b>	<b>%49,7</b>	<b>2934</b>	<b>%50,3</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>2358</b>	<b>%40,4</b>	<b>2370</b>	<b>%40,6</b>
<b>Espa.Fran. Estatuak</b>	<b>687</b>	<b>346</b>	<b>%50,3</b>	<b>341</b>	<b>%49,7</b>
<b>Espainiar estatua</b>	<b>680</b>	<b>343</b>	<b>%50,5</b>	<b>337</b>	<b>49,5</b>
Extremadura	269	131	%49	138	%51
Gaztela eta Leon	212	105	%49,5	107	%50,5
Galizia	59	35	%59	24	%41
Andaluzia	31	17	%55	14	%45
Madril	22	12	%54,5	10	%45,5
Errioxa	20	12	%60	8	%40
Gaztela Mantxa	17	4	%23,5	13	%76,5
Aragoi	14	7	%50	7	%50
Kantabria	13	5	%38	8	%62


Herri. Katalanak	12	7	%58	5	%42
Asturias	10	7	%70	3	%30
Kanariak	1	1	%100	0	%0,0
<b>Frantziar estatua</b>	<b>7</b>	<b>3</b>	<b>%43</b>	<b>4</b>	<b>%57</b>

Esan bezala, nahiz eta orokorrean, Espainiar estatutik etorri diren enen artean sexuaren banaketa nahiko orekatua egon, esanguratsua da, jatorri aldetik, lurralde bereko villabonatarren sexu arteko oreka ez dagoela batere orekatua. Esate baterako, Galizia, Andaluzia, Madril eta Errioxatik etorritakoen artean, feminizazioa askoz ere altuagoa da, esate baterako, Gaztela Mantxa eta Kantabriatik etorri diren artean baino. Bestalde, pertsona gehien osatzen duten lurraldeetakoak, hau da, Extremadura eta Gaztela Leongoak, gizon gehiago dira emakume baino. Hala eta guztiz ere, segmentu honetako emakume guztien erdia baino gehiago osatzen dute (ia %69).

**Adinaren arabera**, atal nagusian esana dugunez, Villabonako biztanle multzo horrek ageri du zahartzerik handiena, bai zenbaki absolutuetan, bai zenbaki erlatiboetan. Jatorri horietako pertsona erdiak pilatzen dira 61 urteko edo gehiagoko adin tartean. Gainera, segmentu honetako pertsona gehienak pilatzen diren lurraldeak aztertuz gero, Extremadura eta Gaztela Leondik etorritako villabonatarrek dira adin tarte honetan ere zahartze tasarik altuena dutenak: Extremaduran 143 pertsona eta Gaztela Leonen 113. Horrez gainera, ordea, eta zehatz-mehatz, 46 urtetik gorako adin tartekoak, bakarrik —2011n udalerrian erroldatutakoak—, jatorri horretako biztanle multzo guztizkoaren %82 baino gehiago dira. Beraz, esan daiteke segmentu honetako biztanleak zahartzerako tendentzia zuzena dutela.

Bestalde, ordea, jatorri horretako biztanle multzoko eta 30 urtetik beherako villabonatarrek biztanleria horren guztizkoaren %17 dira; alegia, 32 pertsona. Biztanle multzo horretan bertan, guztizkoaren %0,9 dira pertsona alegia.

**24. Grafikoa: Espainiar eta Frantziar estatuetatik etorritako villabonatarrek lurralde eta adin tartearen arabera banatuak.**



Bestalde, taulan ikusten denez, Frantziako Estatutik, Errioxatik, Gaztela Mantxatik, Asturiastik eta Herrialde Katalanetatik etorritako biztanleak dira adin gazteenekoak.

**22. Taula: Espainiar eta Frantziar estatuko villabonatarrek lurralde eta adinaren banaketaren arabera.**

Villabona 2011	00-15	16-30	31 - 45	46 - 60	61-75	75<	Guztira
<b>Espainiar estatua</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>85</b>	<b>220</b>	<b>250</b>	<b>93</b>	<b>680</b>
Extremadura	1	5	30	90	114	29	212
Gaztela eta Leon	1	5	19	74	70	43	212
Galizia	1	4	6	14	27	7	59
Andaluzia	0	0	5	10	12	4	31
Madril	4	2	4	9	1	2	22
Errioxa	1	0	2	7	5	5	20
Gaztela Mantxa	2	0	1	5	8	1	17
Aragoi	0	0	8	2	4	0	14
Kantabria	0	0	4	2	6	1	13
Herri. Katalanak	0	4	4	3	1	0	12
Asturias	0	2	1	4	2	1	10
Kanariak	0	0	1	0	0	0	1
<b>Frantziar estatua</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>7</b>
<b>Guztira</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>89</b>	<b>224</b>	<b>250</b>	<b>94</b>	

**Etorritako hamarraldiaren arabera,** zein tokitatik eta kontinentetatik etorritakoak diren kontuan izanda, daturik nabarmenenak gogora ekarriko ditugu.

Lehenik: 50eko, 60ko eta 70eko urteetan jende andana etorri zen Villabonara Euskal Herriko beste herri batzuetatik; hala ere, jendetza handia etorri zen Espainiako eta Frantziako estatuetakoko beste hainbat herrialde eta eskualdetatik ere.

Bigarrenik: 80ko urteetan, krisia eta ekonomiaren zein ekoizpenaren berregituratzea zirela bitarteko, beheraldi bat izan zen biztanle multzo horretako pertsonen etorreran.

Hirugarrenik: 90eko hamarralditik hasita eta, batez ere, 2000ko hamarraldian, gora egiten hasi zen berriro ere Villabonara zetorren migrazio emaria. Bi biztanle multzo horietan gertatu zen, batik bat, susperraldia; Euskal Herri osoko gainerako udalerrietatik etorritakoen artean, gehienbat. Hein txikiagoan bada ere, Espainiako eta Frantziako estatuetatik ere etorri zen jendea. Horrez gainera, eta joera horrekin batean, beste aldaketa bat gertatu zen: etorkin talde horietan, hain zuzen, Europatik eta mundu zabaleko gainerako kontinenteetatik eta herrialdeetatik etorritako pertsonak nabarmentzen hasi ziren, argi eta garbi.

Hala, 2000ko hamarraldian, etorrera guztien %74 izan ziren Villabonatik kanpo Euskal Herriko beste edozein udalerritan jaiotako biztanleak. Euskal Herritik kanpoko beste herrialderen batean jaio eta Villabonara etorritakoak, berriz, %26 izan ziren. Pertsona talde horretan, Espainiako eta Frantziako estatuetatik etorri ziren %62; Europar Batasunetik, %12; eta munduko beste herrialderen batetik, %26.

Gorago esan bezala, orokorrean Gipuzkoan eta Euskal Herrian segmentu honetako pertsonen iritsierak 60. hamarkadan izan zirela azpimarratu, Villabonan, nahiz eta etorrerak garai berdinean antzematen hasi, hamarkada bat beranduago egiten da nabarmen.

**23. Taula: Espainiar eta Frantziar estatuetatik Villabonara iritsitako garaia epeka.**

<b>JAIOAK-ETORRERAK</b>	> 1930	1931-1940	1941-1950	1951-1960	1961-1970	1971 - 1980	1981 - 1990	1991 - 2000	2001 - 2011
<b>Espainiar estatua</b>	1	2	2	38	123	178	115	77	144
Extremadura	0	0	0	6	62	81	43	29	48
Gaztela eta Leon	1	0	2	20	35	54	38	27	35
Galizia	0	0	0	31	89	10	7	12	59
Andaluzia	0	0	0	2	3	10	10	3	3
Madril	0	1	0	0	1	2	0	4	14
Errioxa	0	0	0	5	2	5	4	0	4
Gaztela Mantxa	0	0	0	1	0	8	2	3	3
Aragoi	0	0	0	0	1	2	2	2	7
Kantabria	0	1	0	1	0	2	2	0	7
Herralde Katalanak	0	0	0	0	0	3	1	1	7
Asturias	0	0	0	0	1	2	3	1	3
Kanariak	0	0	0	0	0	0	0	0	1
<b>Frantziar estatua</b>	0	0	0	0	0	1	1	2	3

Probintziaka, bakoitzak bere dinamika izan duela ikus dezakegu taula honetan. Datu esanguratsuenak aipatu arren, segmentu honetako bi probintzia, hau da, Gaztela eta Leon eta Galizia, 50. hamarkadan izan ziren Villabonara iristen lehenengoak. Ondorengo hamarkadan, alegia 60.eanean, Extremaduratik etortzen hasi ziren, 70. hamarkada izanik Extremaduratik etorritakoekin batera, segmentu honetako etorrerarik nabarmenena.

Beste muturrean berriz, Frantziar estatutik etorritakoak ditugu, beren presentzia 90. hamarkadatik aurrera gehiago nabarmenduz.


#### 4.- Europar Batasunean eta munduko beste zenbait herrialdetan jaiotakoak.

Villabonan, gaur egun, guztira 418 bizilagun dira bi biztanle multzo horietakoak; alegia, 2011. urtearen hasiera aldera udalerrian errolatuta zeuden guztien %7,2, eta Euskal Herritik kanpo jaiotako biztanle guztien ia %38.

Halaber, grafikoan ikustenenez, bi biztanle multzo horietan ia %32 dira Europar Batasunetik etorritakoak, eta %68, munduko beste herrialde batzuetatik etorritakoak.

Beraz, Euskal Herritik kanpo jaio direnak kontuan hartzen baditugu, Villabonako jatorrien mapa honela geratzen zaigu:

**25. Grafikoa: Euskal Herritik kanpo jaiotakoen Villabonako mapa lurraldeka**




## 5.- Europar Batasuneko estatuetatik etorritakoak.

Jatorriaren arabera, Villabonara Europar Batasuneko herrialdeetatik etorritakoen banaketari erreparatuta, Portugalen eta Europar Batasunari 2007ko urtarrilaren 1ean atxiki zitzaion Errumaniatik etorritakoak dira, biak kopuru bera izanik. Bien artean, Europar Batasunetik etorritako guztien %76 baino gehiago osatzen dute.

Honi jarraituz, baina kopuru askoz gutxiagorekin, Belgika eta Bulgaria<sup>5</sup> ditugu, biak ere kopuru berarekin eta EBtik etorritako guztien %10,5 osatuz.

### 26. Grafikoak: EBko lurraldeetatik Villabonara etorritakoen portzentajea beren jaiotze lurraldearen arabera.



<sup>5</sup> Errumaniarekin batera, 2007ko urtarrilaren 1ean Europar Batasuneko herrialdeetan atxikitu zen.

Jatorriaren arabera biztanle multzoan, oro har, oso handia da gizonen kopurua, %62tik gora baitira. Alegia, beste guztien artean, multzo horreketan bakarrik dira gizonak emakumeak baino gehiago, argi eta garbi eta ezinago nabarmen.


Grafikoan ikusten denez, Alemania, Belgika eta Italia alde batera utzita, lehen aipatutako talde garrantzizko horiei dagokie *desfeminizazio* mailarik gorena, batez ere Portugal.

**24. Taula: EBtik etorritako villabonatarrek lurralde eta sexuaren arabera banatuak (zenbaki absolutuak).**

Villabona 2011	Guztira	Emakumeak	Gozonak
<b>Guztira</b>	<b>5833</b>	<b>2899</b>	<b>2934</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>2358</b>	<b>2370</b>
<b>Esp-Fran estatuak</b>	<b>687</b>	<b>346</b>	<b>341</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>133</b>	<b>54</b>	<b>79</b>
Portugal	51	19	32
Errumania	51	22	29
Belgika	7	3	4
Bulgaria	7	4	3
Alemania	5	3	2
Italia	4	3	1
Britainia Handia	3	0	3
Polonia	2	0	2
Irlanda	1	0	1
Beheko Herriak	1	0	1
Txekiar Errepublika	1	0	1

Jatorriaren arabera garrantzirik handienekoak diren talde horiek badute beste ezaugarri bat ere: gazteen adin tartean eta pertsona aktiboen artean pilatzen direla haietatik etorritakoak.

## 27. Grafikoa: EBN jaiotako villabonatarrek lurralde eta adinaren arabera.



Etorkinen jatorriari dagokionez, zein estatutatik eta herrialdeetatik etorritakoak diren ikusita, 16-45 urtekoen adin tartean pilatuta daude, gehienbat. Salbuespenak, Britainia Handitik etorritako eta Poloniatik etorritako villabonatarrek izango dira, aipatutako adin tarte horretako inor ez dagoelako.


## 25. Taula. EBN jaiotako en jaioterriak eta adinak

Vill 2011	0-15	16-30	31-45	46-60	61-75	76<
<b>Guztira</b>	<b>956</b>	<b>829</b>	<b>1521</b>	<b>1205</b>	<b>856</b>	<b>466</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>897</b>	<b>701</b>	<b>1259</b>	<b>930</b>	<b>589</b>	<b>370</b>
<b>Esp-Frant estatuak</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>85</b>	<b>220</b>	<b>250</b>	<b>93</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>133</b>	<b>10</b>	<b>40</b>	<b>43</b>	<b>29</b>	<b>92</b>
Portugal	3	8	18	13	7	2
Errumania	4	23	13	11	0	0
Belgika	0	2	3	1	1	0
Bulgaria	2	2	3	0	0	0
Alemania	0	0	4	1	0	0
Italia	0	3	1	0	0	0
Britainia	1	0	0	1	1	0

Handia						
Polonia	0	0	0	2	0	0
Irlanda	0	1	0	0	0	0
Beheko Herriak	0	0	1	0	0	0
Txekiar Errepublika	0	1	0	0	0	0

Etorritako hamarraldiaren arabera, azkeneko hamarraldi honetan etorritakoak dira Europar Batasunean jaiotako biztanle multzokoak; Portugalgoak izan ezik, 60ko eta 70eko urteetan hasi baitziren etortzen handik —nahiz eta, gehi

### 28. Grafikoa: EBn jaiotako villabonatarren iritsiera garaiak



Hala, Villabonan eta Euskal Herrian 2000ko hamarraldian izandako etorrera guztien %85 baino gehiago osatzen dute herrialde horietatik guztietatik etorritako pertsona taldeek; Alemaniatik, Belgikatik eta Italiatik etorritakoek izan ezik. Errumanian eta Portugalen jaiotakoak eta azkeneko hamarraldian hona etorritakoak, berriz, EBko biztanle guztien %68 dira.


## **6.- Munduko beste toki batzuetako estatuetatik eta herrialdeetatik etorritakoak.**

Azkenik, ohartarazpen bat egin beharra dago beste herrialde eta estatu batzuetan jaiotakoei dagokienez, Espainiako eta Frantziako estatuak *komunitatez besteko etorkin atzeritar* deritzenez. Gehienetan, pertsona horiei buruzko estatistika datuak ezin dira hartu errealitatearen adierazpide *natural* eta fidagarritzat; izan ere, Europan eta Espainiako eta Frantziako estatuetan indarrean dauden politikak eta legediak ezinago murriztaileak, sexistak eta diskriminatzaileak dira.

Nolanahi ere, biztanle errola da etorreren emaria aztertzeke lanabesik onena. Nahiz eta jakinekoa den, azken Tokiko Erreforma dela bitarteko, aho biko ezpata bihurtu dela errola; orain arte baliabide egokia zen ikusteko udalerrri euskaldunetako herritarrek gutxienez zein gizarte zerbitzu izateko aukera duten. Orain ere zaila da erroldan sartzea; are eta zailagoa da Europar Batasunetik kanpoko tokiren batetik datozen etorkinentzat; batez ere, hegoaldeko eremuetatik datozenentzat. Gaur egun, ordea, udalerrriak eta haietako jendea kontrolatzeko lanabes gisa darabilte estatuak.

Zailtasunak zailtasun, ikusten denez, lurralde hauek kontinenteka banatzen baditugu, Amerikako kontinentetik etorritakoak dira segmentu honetako villabonatar erdiak, honi jarraituz, Afrikatik etorritakoak ditugu %38rekin.

**29. Grafikoa: Munduko beste lurraldeetan jaiotako villabonatarren kontinentekak.**



Jatorrizko lurraldeak aztertuz gero, Tolosaldean ematen den bezalaxe, Marokotik etorritakoak villabonatarren dira segmentu honetako jatorriko kopurutsuenak (%23), ondoren Ukrainiatik etorritakoak (%8) eta ondoren, Hegoaldeko Amerikatik etorritakoak: Nikaragua (%7,7), Kolonbia (%7), Ekuador (%5), eta abar.

Sexuaren ikuspegitik, jatorri multzo hau orokorrean hartzen badugu, oso orekatuta dagoela esan daiteke (%49,5-%50,5). Aitzitik, kontinentekaz aztertzen badugu, Afrika eta Amerikako kontinenteen artean ikus dezakegu ezberdintasun nagusia. Lehenengoan, defeminizazio garrantzitsu bat ematen den bitartean (%33 emakume eta %67 gizon), bigarrenengoan emakumeen presentzia da zalantzarik gabe garrantzi gehien duena (%61 emakume eta %39 gizon).

**26. Taula: Munduko beste lurraldeetan jaiotako villabonatarren jaioterri eta sexuaren arabera.**

Villabona 2011	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Guztira</b>	<b>5833</b>	<b>2899</b>	<b>2934</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>2358</b>	<b>2370</b>
<b>Esp-Fran estatuak</b>	<b>687</b>	<b>346</b>	<b>341</b>
<b>Munduko lurralde</b>	<b>285</b>	<b>141</b>	<b>144</b>

<b>Europako beste herriak</b>	<b>33</b>	<b>14</b>	<b>19</b>
Ukrainia	23	11	12
Moldavia	5	0	5
Errusia	5	3	2
<b>Asia</b>	<b>13</b>	<b>7</b>	<b>4</b>
Pakistan	8	4	4
Txina	2	2	0
Japonia	1	1	0
Bangladesh	1	0	1
India	1	0	1
<b>Afrika</b>	<b>96</b>	<b>32</b>	<b>64</b>
Maroko	68	22	46
Algeria	9	2	7
Senegal	7	3	4
Nigeria	6	2	4
Angola	3	3	0
Ghana	1	0	1
Ginea Bissau	1	0	1
Mali	1	0	1
<b>Amerika</b>	<b>143</b>	<b>88</b>	<b>55</b>
Nikaragua	22	19	3
Kolonbia	20	13	7
Ekuador	16	5	11
Dominikar Errepublika	15	10	5
Brasil	12	9	3
Venezuela	10	5	5
Kuba	9	5	4
Argentina	9	5	4
Peru	9	5	4
Honduras	7	4	3
Mexiko	5	2	3
Bolivia	5	4	1
Txile	3	2	1
Uruguai	1	0	1

**Adinaren ikuspuntutik**, Europar Batasunetik etorritakoak bezalaxe, munduko beste lurraldeetatik etorritako gehienak (%69) 16 eta 45 urte bitartekoak dira, hau da, lanaren ikuspuntutik, garai aktiboan kokatzen dira.

Dena den, esanguratsua da segmentu honetako adin tarte gazteena (0-15 urte), %20 osatzen duela. Hori ikusita, segmentu honetako pertsonak pixkanaka familiadun profilekoak direla esan daiteke, eta horrek, gure gizartean errotzen ari direla adierazten du.

Zahartzaroari dagokionez, talde honetan apenas ez dauka presentziarik 61 urtetik gorako pertsonarik, izan ere, soilik %2,8 osatzen dute.

**27. Taula: Beste munduko lurraldeetatik etorritako villabonatarrek adinaren arabera sailkatuak.**

Villabona 2011	Total	0 - 15	16 - 30	31 - 45	46 - 60	61 - 75	76 <
<b>Guztira</b>	<b>5833</b>						
<b>EHn jaioak</b>	<b>4728</b>	<b>897</b>	<b>701</b>	<b>1259</b>	<b>930</b>	<b>589</b>	<b>370</b>
<b>Espa.Fran. Estatuak</b>	<b>687</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>87</b>	<b>224</b>	<b>250</b>	<b>94</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>133</b>	<b>10</b>	<b>40</b>	<b>43</b>	<b>29</b>	<b>9</b>	<b>2</b>
<b>Munduko beste herriak</b>	<b>285</b>	<b>57</b>	<b>66</b>	<b>132</b>	<b>22</b>	<b>8</b>	<b>0</b>
<b>Europako beste herriak</b>	<b>33</b>	<b>10</b>	<b>7</b>	<b>14</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
Ukrainia	23	8	4	9	1	1	0
Moldavia	5	0	1	4	0	0	0
Errusia	5	2	2	1	0	0	0
<b>Asia</b>	<b>13</b>	<b>9</b>	<b>0</b>	<b>4</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
Pakistan	8	6	0	2	0	0	0
Txina	2	2	0	0	0	0	0
Japonia	1	0	0	1	0	0	0
Bangladesh	1	0	0	1	0	0	0
India	1	1	0	0	0	0	0
<b>Afrika</b>	<b>96</b>	<b>14</b>	<b>28</b>	<b>45</b>	<b>6</b>	<b>3</b>	<b>0</b>
Maroko	68	11	21	32	2	2	0
Aljeria	9	2	3	4	0	0	0
Senegal	7	0	1	3	3	0	0
Nigeria	6	1	2	3	0	0	0
Angola	3	0	0	1	1	1	0
Ghana	1	0	0	1	0	0	0
Ginea-Bissau	1	0	1	0	0	0	0
Mali	1	0	0	1	0	0	0
<b>Amerika</b>	<b>143</b>	<b>24</b>	<b>31</b>	<b>69</b>	<b>15</b>	<b>4</b>	<b>0</b>
Nikaragua	22	3	5	12	2	0	0

Kolonbia	20	3	6	9	2	0	0
Ekuatore	16	1	4	9	2	0	0
Dominikar Errepublikak	15	4	5	5	0	1	0
Brasil	12	2	5	2	2	1	0
Venezuela	10	4	0	5	1	0	0
Kuba	9	0	1	6	2	0	0
Argentina	9	0	0	8	0	1	0
Peru	9	3	1	4	1	0	0
Honduras	7	2	1	3	1	0	0
Mexiko	5	1	2	1	0	1	0
Bolivia	5	0	1	3	1	0	0
Txile	3	1	0	2	0	0	0
Uruguai	1	0	0	0	1	0	0

**Etorritako hamarraldiaren arabera**, biztanle multzo horretakoak azkeneko hamarraldi honetan etorri dira, gehienbat (%96).

**28. Taula: Munduko beste lurraldeetatik Villabonara iritsitakoek hamarraldiak.**

Villabona 2011	Guztira	>1931	1931 - 1940	1941 - 1950	1951 - 1960	1961 - 1970	1971 - 1980	1981 - 1990	1991 - 2000	2001 - 2011
<b>EHn jaiok</b>	<b>4728</b>	7	11	26	155	320	505	401	597	1072
<b>Espa.Fran. Estatuak</b>	<b>687</b>	1	2	2	38	123	179	116	79	147
<b>Europar Batasuna</b>	<b>133</b>	0	0	0	0	1	2	5	11	114
<b>Munduko beste herriak</b>	<b>285</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>274</b>

#### 4. VILLABONAKO HEZKUNTZA SISTEMAREN SARBIDEAK ETA IKASLERIAREN JAIOTERRIA

Hasiera batean azaldu bezala, Euskal Herriko edozein eremutatik etorritako pertsonen, eta batez ere hauen seme-alaben, integrazio sozial, profesional eta linguistikoa bermatzeko, hezkuntza sistema egoki bat ezartzea ezinbestekoa litzateke; gure kasuan, nazio, minorizatu bezala, beharrezkoa da materia honen inguruko diagnostikoak sakonki aztertzea.

Hezkuntza formaleko ikastetxeetako arduradunekin egindako bileretan ondorioztutako informazioa eta EAEko Hezkuntza sailak erraztutako datuak kontuan izanik, gaur egun, Villabonan ez dago familia migratzaileen ikasle askorik matrikulatuta. Zifrei dagokionez, portzenataia, batez besteko osoaren baitan egongo litzateke (%3,36), hala ere, Gipuzkoa edota gainerako udalerrien datuen azpitik (Berastegi izan ezik)

**29. Taula: Tolosaldeako familia migratzaileen ikasle kopurua eta portzentaia (soilik 1000 biztanletik gorako udalerrriak)**

UDALERRIA	MIGRA	GUZTIRA	%
ALEGIA	16	319	4,86
ANOETA	14	307	4,56
ASTEASU	5	233	2,15
BERASTEGI	1	123	0,81
IBARRA	19	334	5,69
TOLOSA	175	3598	4,86
<b>VILLABONA</b>	<b>36</b>	<b>1070</b>	<b>3,36</b>

**30. Taula: Gipuzkoan matrikulatutako ikasleen sailkapena EAEko hezkuntza sailaren arabera.**

<b>IKASLE IMMIGRANTEAK</b>					<b>IKASLEAK GUZTIRA</b>					<b>Inmigranteen %</b>	
	A	B	D	TOT		A	B	D	GUZT.		
HH	1	104	820	<b>925</b>	HH	712	4.035	27.450	<b>32.197</b>	.....	% <b>2,87</b>
LH	55	853	1.771	<b>2.679</b>	LH	1.057	8.388	29.217	<b>38.662</b>	.....	% <b>6,93</b>
DBH	103	797	657	<b>1.557</b>	DBH	827	6.360	16.633	<b>23.820</b>	.....	% <b>6,54</b>
BTX	133	296	122	<b>551</b>	BTX	2.885	383	6.779	<b>10.047</b>	.....	% <b>5,48</b>
LH EM	1			<b>1</b>	LH EM	1.806	130	1.795	<b>3.731</b>	.....	% <b>0,03</b>
LH GM	19	11	3	<b>33</b>	LH GM	3.055	443	2.657	<b>6.155</b>	.....	% <b>0,54</b>
<b>GZT.</b>	<b>312</b>	<b>2.061</b>	<b>3.373</b>	<b>5746</b>	<b>GZT.</b>	<b>10.342</b>	<b>19.739</b>	<b>84.531</b>	<b>114.612</b>	.....	<b>5,01 %</b>

Era berean, Villabonako datuak eta dagokion Berritzeguneko gainerako zentroetako\* datuak aldera ditzakegu, beti ere, hizkuntza-eredua eta matrikulazio sarearen arabera. Aipatutako Berritzegune zentro multzoan, Villabonako eta Gipuzkoako ikastetxeak izango genituzke.

**31. Taula: Sare eta eredu linguistikoaren araberako migratzaile familietako ikasle kopurua osoa**

	<b>PRIBATUA</b>				<b>PUBLIKOA</b>				*	<b>GLOBALA</b>			
	A	B	D	Gzt.	A	B	D	Gzt.		A	B	D	Gzt.
Villabona	22 22				14 14					36 36			
Berritz. Lasarte	9	70	310	389	3	76	296	375		12	146	606	764
Gipuzkoa Guztira	150	782	2.302	3.234	162	1.278	1070	2.510	10	312	2.060	3.372	5.754

\* Besterik

\* Berritzegune barruko audalerrak: Abaltzisketa, Aduna, Aginaga, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Andoain, Anoeta, Asteazu, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Hernani, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Lasarte-Oria, Lizartza, Tolosa, Urnieta, Usurbil eta Villabona.

Villabonaren kasuan, eskualdeko gainerako udalerrri gehienetan bezala, migratzaile familietako ikasle guztiak, D ereduan daude matrikulatuta. Datu hau benetan garrantzitsua da, izan ere, eredu honek bakarrik lortu dezake ikasleriak derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan, EAEko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea eta, aldi berean, ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzea.

Bestalde, eta aurreko taulan ikusten den bezala, Gipuzkoa mailan ikasle hauen kopururik handiena administraziopeko sareko ikastetxeetan matrikulaturik dagoen bitartean, Villabonan alderantziz gertatzen. Horrela, itunpeko Jesus Bihotzaren Ikastolak ia-ia bikoizten du Dr. Fleming eta Ernio Behea ikastetxeen ikasle kopuruak baturik.

Ikasle multzo hau, horrela dago matrikulaturik. Hau litzateke, hezkuntza zikloen araberako sailkapena:

**32. Taula: Villabonako ikastetxeen matrikulazioak hezkuntza zikloen arabera.**

IKASTETXEA	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza			DBH			Guztira	%
	Migr	Guzt	%	Migr	Guzt	%	Migr	Guzt	%		
<b>Dr. Fleming LHI</b>	3	121	<b>2,48</b>	5	185	<b>2,7</b>				8/306	<b>2,61</b>
<b>Ernio Behea BHI</b>							6	230	<b>2,61</b>	6/230	<b>2,61</b>
<b>Jesusen Bihotza Ikastola</b>	5	161	<b>3,11</b>	16	239	<b>6,69</b>	1	134	<b>0,75</b>	22/534	<b>4,12</b>
<b>Guztira</b>	8	282	<b>2,84</b>	21	424	<b>4,95</b>	7	364	<b>1,92</b>	36/1070	<b>3,36</b>

Ondorengo taulan, Euskal Herritik kanpoko jatorria duten eta Villabonan matrikulatutako ikasleriaren jatorriak ikus daitezke, beti ere, EAEko Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera:

Esan daiteke, beharrezkoa genukeela jatorri hauek sakonki ezagutzea, ondoren, hauen kultura eta hizkuntzak kontuan izango dituzten ekimenak bultzatzeko. Hezkuntza esparruko pertsona guztien identitatea eta kultura errespetatuko dituen kulturantzitasunean oinarritutako hezkuntza sistema bat sortuz.


### 33. Taula: EHTik kanpoko jatorriak dituzten ikasleen lurraldeak

JATORRIZKO ESTATUA	IKASLE KOPURUA
Argentina	2
Brasil	1
Bulgaria	1
Dominikar Errepublika	2
Ekvador	2
Errumania	2
Espainiar Estatua	6
Kolonbia	4
Maroko	2
Mendebaldeko Sahara	1
Nikaragua	1
Peru	1
Portugal	6
Senegal	1
Ukrainia	1
<b>Guztira</b>	<b>33</b>

EAEko hezkuntza sailak erraztutako datuen arabera, argi ikus dezakegu multzorik handiena Estatu Espainolaren aldekoek osatzen dutela, Portugalekoekin batera. Aurretik azaldu bezala, Euskal Herria politikoki nazio minorizatua dugu, horregatik, askotan zaila izaten da subjektu migratzailea zein den identifikatzea, eta ondorioz, oraintxe aipatutako datuak eskuratzea. Hau dela eta, administrazioak, haur hezkuntzako etapa baino beranduago

matrikulatu diren espainiar Estatutik etorritako ikasleen datuak jasotzen ditu soilik, baina ez du prozedura bera jarraitzen beste jatorrietako migratzaile familiekin.

### 30. Grafikoa: Familia migratzaileen ikasleak multzoka taldekatuak. Kontinenteak eta Espainiar Estatua



Goiko grafikoan ikusten den bezala, Estatu Espainoetik etorritako familien ikasle kopurua oso esanguratsua da. Administrazioak soilik EAEko Hezkuntza Sistemari derrigorrezko eskolaldia hasi eta gero gehitzen direnak kontuan hartzen dituzenez, migratzaileen artean zenbatzeko, honek esan nahi du Estatu Espainolean jatorria izaten dutenen fluxua Villabonan oraindik ere garrantzitsua dela.

Jatorriaren arabera datu hauek Gipuzkoakoekin alderatuz gero, migratzaile familietako ikasle guztien artean (5.754), Ekuadorren jaiotakoak dira nagusi (684 ikasle); jarraian, Marokon (574); Kolonbiarrak (532); Errumaniarrak (482); Espainiar Estatukoak (463) genituzke.

## 5. ONDORIOAK

Villabonak, Euskal Herriko beste hainbat udalerrik bezala, joan den mende hasieratik emandako migrazio fluxuen errealitatea bizi izan du. Errealitate hori, 60. eta batez ere 70. hamarkadan handitzen joan zen, batez ere Espainiar Estatutik etorritako biztanleen eraginez.

Globalizazioaren fenomenoak dela eta, migrazio fluxu honi, azken hamarkadan Europar Batasunetik eta munduko beste lurraldeetatik etorritako pertsonak gehitu behar zaizkio.

Ondorioz, egungo Villabonako aniztasuna zabaldu egin dela esan daiteke, jatorri ezberdinetako pertsona gehiago izatearekin batera, hauek beraiekin errealitate ezberdinak ekarri dituztelako: hainbat kultura eta hizkuntza, gizarte eta ohitura ezberdinak, mundua ikusteko eta bertan kokatzeko modu desberdinak, erlijioa bizitzeko esperientziak, formazio maila ezberdinak, etab. Horrela, Villabonan momentu honetan 5 kontinenteetatik etorritako 50 lurralde baino gehiagotako pertsonak eta hainbat kultura eta hizkuntza elkarrekin bizi dira.

Hori dela eta, Villabonako udalak, azken urte luzeetan herriak izandako bilakaerari erreparatuz, jatorri ezberdinetatik etorritako pertsonen argazki bat egiteko premia ikusi zuen eta argazki honen bitartez, elkarbizitza kudeatzeko erremintak sortu nahi izan dira. Honi erantzuteko asmoz, Anitzak Ekimenaren laguntzaz, *Migrazioak eta Aniztasuna Villabonan eta Euskal Herrian* Diagnostiko kuantitatiboa 2011 egin da.

Gogoratu behar da ere, Villabonarentzat lan hau ez dela erabat berria, eskualde mailan lantzen ari diren hainbat lan talde eta saretan parte hartzen baitu. Beraz, herrian zein bailaran sortzen diren dinamikak, elkarren osagarriak direla esan daiteke.

Bestalde, gure jendartea etengabe aldatzen ari da bizitzako alor guztietan, arlo ekonomikoan, politikoan, sozialean..., eta Villabonan zein Euskal Herrian bizi

garen guztiok, eraldatze prozesu horren parte gara. Hori dela eta, proiektu honen bitartez, ikusi den behar nagusi bat zera da, bertan bizi garen herritarrak, gure ezaugarriak kontutan hartuta, eraldaketa eta bilakaera honetan, subjektu aktibo bilakatu behar garela, noruntz joan nahi dugun, nolako gizartea nahi dugun eta gure herria nolakoa izatea nahi dugun hausnartu eta bultzatuko dugun eragile.

Horregatik, lehen urrats moduan, herria osatzen dugun guztion presentzia bermatzeko, ezinbestekoa da bakoitzak bere jatorriari buruzko aitortza adieraztea, hau da, inongo konplexurik gabe, Villabona osatzen dugunok nor garen adieraztea. Honek, jendarte anitz honen subjektu aktibo bihurtzeko aukera ematen digu, jendarte anitza eraikitzen hasteko lehen urratsa emateko aukera. Izan ere, ezin dugu elkarbizitzaz hitz egin udalerriko eragile batzuk bakarrik hartzen baditugu kontuan, elkarbizitza beharrean, *batzuen* proiektio bat besterik izateko arriskua egon daitekeelako.

Testuinguru honetan, eta asmo honi erantzun nahian, Villabonan lehen urratsak eman nahi izan dira eta *Mundua Villabonan; Villabona munduan. Jatorri Anitz; Herri bat* Aniztasun Astea ospatu da. Lehenago esan bezala, helburu nagusia, Villabonako jatorri ezberdinetako pertsonen artean elkar ezagutzeko espazioak sortzea izan da. Horretarako, herriko eragile ezberdinak ekintzen protagonistak izan dira, subjektu aktibo moduan. Aurrera begira, ekintza honek bide bat ireki duela esan daiteke, nahiz eta oraindik ere, pixkanaka eragile gehiago inplikatzeko beharra dagoen.

Esan bezala, elkarbizitza emateko lehen urratsa elkar ezagutzea da, hau da, herria osatzen dugunok nortzuk garen jakitea. Beraz, ezinbestekoa da erakunde publiko, pribatu, elkarte, eragile eta herritar ororen parte hartzea eta aniztasuna kudeatzeko baliabideak sortzea.

Diagnostiko honetan kontutan izan diren jatorriei dagokionez, Villabonan eta Euskal Herrian jaio diren pertsonak herritar guztien % 81 dela ikusi dugu. Hala eta guztiz ere, Euskal Herritik kanpo etorritakoen %12 Espainiar eta Frantziar estatuetatik etorritakoak dira, ia %5 munduko beste lurraldeetatik etorriak eta

%2 Europar Batasunetik. Beraz, elkarbizitzaz ari garenean, segmentu hauetako pertsona guztiak kontuan izatea eta aintzat hartzea proposatzen da.

Aniztasun hau hezkuntza sisteman ere islatzen da, izan ere, derrigorrezko hezkuntzako Villabonako ikasle guztien %3 baino gehiagok, Euskal Herritik kanpoko jatorriak dituzte. Beraz, beharrezkoa genuke eskoletako ikasleen jatorri hauek sakonki ezagutzea, hauen kultura eta hizkuntzak kontuan izango dituzten ekimenak bultzatzeko. Ekimen hauek eskola barrukoak ez ezik, ikuspegi komunitarioa ere izatea garrantzitsua izango litzateke.

Gure erronka, aniztasun hau jendartean ongi txertatu eta garatzea da, gizarte eraikitzaile bat sortzeko helburuarekin. Eta hau guztia, Euskal Herrian bizi dugun egoera kontutan hartuz: oinarritzko eskubideetan ditugun mugekin, hizkuntza aldetik eta euskara hizkuntza gutxitua den heinean sortzen zaizkigun zailtasunekin, gure egoera eta ezaugarri politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak kontutan izaiak eta abar. Horregatik proiektu honek, konplexutasun hau kudeatzeko eta elkarbizitza sustatzeko erreminta bat izan nahi du.

Aurrera begira, erreminta hau eskuetan izanik, udalerriko eragile ezberdinen artean, erronka hauen inguruan hausnartu eta garatzeko prozesu parte-hartzaileak sortzea da helburua. Denon artean, zer nolako gizarte eta elkarbizitza ereduak nahi ditugun aztertzekeko guneak sortu eta denon artean elkarbizitza eraiki.

## 6. ERANSKINA. Villabonara bizitzera etorri direnen lurraldeen zerrenda

Villabonara bizitzera etorri diren pertsonen jatorrien lurraldeen zerrenda:

### Euskal Herrian jaiotako villabonatarren lurraldeak:

Villabona 2011	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Guztira</b>	<b>5834</b>	<b>2899</b>	<b>2934</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>2358</b>	<b>2370</b>
<b>Gipuzkoa</b>	<b>4575</b>	<b>2273</b>	<b>2302</b>
<b>Villabona</b>	<b>1634</b>	<b>795</b>	<b>839</b>
<b>Donostia</b>	<b>1286</b>	<b>644</b>	<b>642</b>
Tolosa	551	252	299
Zizurkil	155	70	85
Asteasu	126	64	62
Andoain	90	48	42
Aduna	43	23	20
Ibarra	42	22	20
Anoeta	32	17	15
Hernani	32	18	14
Aia	29	16	13
Alkiza	27	17	10
Larraul	24	14	10
Amezketza	23	9	14
Bidegoian	23	8	15
Irura	22	12	10
Irun	20	15	5
Urnietza	17	11	6
Beizama	16	10	6
Bersategi	16	6	10
Berrobi	16	5	11
Lizartza	15	10	5
Ordizia	15	9	6
Orereta	15	6	9
Altzo	14	7	7
Zumarraga	14	8	6
Usurbil	13	9	4
Alegia	12	4	8
Zaldibia	12	10	2
Azkoitia	11	5	6
Azpeitia	11	7	4
Leaburu-Txarama	10	5	5
Abaltzisketa	9	6	3
Albiztur	9	3	6
Lasarte-Oria	9	4	5
Beasain	8	6	2
Legazpi	8	4	4
Pasaia	8	5	3
Segura	7	5	2
Errezil	6	3	3

Hondarribia	6	3	3
Lazkao	6	3	3
Lezo	6	4	2
Orio	6	3	3
Urretxu	6	2	4
Belauntza	5	3	2
Eibar	5	3	2
Elduaian	5	2	3
Legorreta	5	2	3
Oiartzun	5	5	0
Zestoa	5	2	3
Antzuola	4	3	1
Astigarraga	4	2	2
Ataun	4	2	2
Baliarrain	4	3	1
Gaintza	4	4	0
Gaztelu	4	1	3
Itsasondo	4	3	1
Ormaiztegi	4	2	2
Zarautz	4	3	1
Arrasate	3	1	2
Deba	3	3	0
Gabiria	3	1	2
Getaria	3	1	2
Hernalde	3	3	0
Idiazabal	3	0	3
Ikaztegieta	3	2	1
Oñati	3	2	1
Soraluze	3	0	3
Zegama	3	1	2
Zumaia	3	2	1
Bergara	2	1	1
Ezki-Itsaso	2	1	1
Mutiloa	2	2	0
Mutriku	2	2	0
Olaberría	2	1	1
Aizarnazabal	1	0	1
Eskoriatza	1	1	0
Leintz-Gatzaga	1	1	0
Orendain	1	0	1
Orexa	1	0	1
Zerain	1	1	0

<b>Araba</b>	<b>17</b>	<b>9</b>	<b>8</b>
<b>Gasteiz</b>	<b>12</b>	<b>7</b>	<b>5</b>
Alegria-Dulantzi	1	0	1
Asparrena	1	0	1
Behe Erribera	1	0	1
Bernedo	1	1	0
San Millan	1	1	0
<b>Bizkaia</b>	<b>44</b>	<b>21</b>	<b>23</b>

<b>Bilbo</b>	<b>16</b>	<b>7</b>	<b>9</b>
Barakaldo	8	4	4
Larrabetzu	2	0	2
Lekeitio	2	1	1
Portugalete	2	1	1
Trapaga	2	1	1
Amorebieta-Etxano	1	1	0
Barrika	1	1	0
Basauri	1	1	0
Erandio	1	0	1
Ibarrangelu	1	0	1
Kortezubi	1	0	1
Markina-Xemei	1	1	0
Muskiz	1	0	1
Nabarniz	1	1	0
Orduña	1	1	0
Sestao	1	1	0
Sopuerta	1	0	1
<b>Lapurdi</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>Baiona</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
Donibane Lohitzune	1	1	0
<b>Nafarroa Garaia</b>	<b>89</b>	<b>53</b>	<b>36</b>
<b>Iruña</b>	<b>29</b>	<b>16</b>	<b>13</b>
Araitz	9	4	5
Goizueta	4	3	1
Leitza	4	2	2
Mendabia	4	2	2
Adios	3	0	3
Betelu	3	3	0
Larraun	3	2	1
Ultzama	3	3	0
Altsasu	2	2	0
Ituren	2	2	0
Uztarroz	2	2	0
Viana	2	1	1
Andosilla	1	0	1
Arano	1	0	1
Los Arcos	1	0	1
Arguedas	1	1	0
Bargota	1	1	0
Basaburua	1	0	1
Baztan	1	1	0
Bera	1	1	0
Castejón	1	0	1
Corella	1	1	0
Ezkurra	1	1	0
Imotz	1	1	0
Irañeta	1	0	1
Lana	1	0	1
Lesaka	1	1	0

Milagro	1	0	1
Monreal	1	1	0
Sesma	1	1	0
Uxue	1	1	0

**Espainiar eta Frantziar estatuetan jaiotako villabonatarren lurraldeak:**

Villabona 2011	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Guztira</b>	<b>5833</b>	<b>2899</b>	<b>2934</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>2358</b>	<b>2370</b>
<b>Espainiar estatua</b>	<b>680</b>	<b>343</b>	<b>337</b>
<b>Andaluzia</b>	<b>31</b>	<b>17</b>	<b>14</b>
Granada	8	5	3
Kordoba	7	4	3
Jaen	7	4	3
Malaga	5	2	3
Cadiz	3	2	1
Huelva	1	1	0
<b>Aragoi</b>	<b>14</b>	<b>7</b>	<b>7</b>
Zaragoza	9	5	4
Huesca	5	2	3
<b>Asturias</b>	<b>10</b>	<b>7</b>	<b>3</b>
<b>Errioxa</b>	<b>20</b>	<b>12</b>	<b>8</b>
<b>Extremadura</b>	<b>269</b>	<b>131</b>	<b>138</b>
Cáceres	192	88	104
Badajoz	77	43	34
<b>Galizia</b>	<b>59</b>	<b>35</b>	<b>29</b>
Lugo	22	14	8
Ourense	14	8	6
Pontevedra	13	8	5
A Coruña	10	5	5
<b>Gaztela eta Leon</b>	<b>212</b>	<b>105</b>	<b>107</b>
Salamanca	78	39	39
Burgos	35	17	18
Valladolid	35	14	21
Palentzia	26	14	12
Zamora	12	7	5
Avila	10	5	5
Leon	8	5	3
Soria	6	5	1
Segovia	2	2	0
<b>Gaztela Mantxa</b>	<b>17</b>	<b>4</b>	<b>13</b>
Toledo	10	4	6
Ciudad Real	3	0	3
Albacete	2	0	2
Guadalajara	1	1	0

Teruel	1	0	1
<b>Herralde Katalanak</b>	<b>12</b>	<b>7</b>	<b>5</b>
Bartzelona	2	1	1
Girona	2	1	1
Illes Balears	2	2	0
Valentzia	2	2	0
Alacant	1	0	1
Castelló	1	1	0
Lleida	1	0	1
Tarragona	1	0	1
<b>Kanariak</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
<b>Kantabria</b>	<b>13</b>	<b>5</b>	<b>12</b>
<b>Madril</b>	<b>22</b>	<b>12</b>	<b>10</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>680</b>	<b>343</b>	<b>337</b>

<b>Frantziar estatua</b>	<b>7</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
Arras Pas de Calais	1	1	0
Bagneres de Bigorre	1	0	1
Montpellier	1	0	1
Nievre	1	0	1
Paris	1	1	0
Uccle	1	0	1
Villeurbane	1	1	0

#### Europar Batasuneko lurraldeetan jaiotako villabonatarren lurraldeak:

Villabona 2011	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Guztira</b>	<b>5833</b>	<b>2899</b>	<b>2934</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>2358</b>	<b>2370</b>
<b>Espainiar - Frantziar estatuak</b>	<b>687</b>	<b>346</b>	<b>341</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>133</b>	<b>54</b>	<b>79</b>
Portugal	51	19	32
Errumania	51	22	29
Belgika	7	4	3
Bulgaria	7	3	4
Alemania	5	3	2
Italia	4	3	1
Britainia Handia	3	0	3
Polonia	2	0	2
Irlanda	1	0	1
Beheko Herriak	1	0	1
Txekiar Errepublika	1	0	1

#### Munduko beste lurraldeetan jaiotako villabonatarren lurraldeak:

Villabona 2011	Guztira	Emakumeak	Gizonak
----------------	---------	-----------	---------

<b>Guztira</b>	<b>5833</b>	<b>2899</b>	<b>2934</b>
<b>Euskal Herria</b>	<b>4728</b>	<b>2358</b>	<b>2370</b>
<b>Espainar-Frantziar est</b>	<b>687</b>	<b>346</b>	<b>341</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>133</b>	<b>54</b>	<b>79</b>
<b>Munduko beste herriak</b>	<b>285</b>	<b>141</b>	<b>144</b>
<b>Europako beste herriak</b>	<b>33</b>	<b>14</b>	<b>19</b>
Ukrainia	23	11	12
Moldavia	5	0	5
Errusia	5	3	2
<b>Asia</b>	<b>13</b>	<b>7</b>	<b>6</b>
Pakistan	8	4	4
Txina	2	2	0
Japonia	1	1	0
Bangladesh	1	0	1
India	1	0	1
<b>Afrika</b>	<b>96</b>	<b>32</b>	<b>64</b>
Maroko	68	22	46
Aljeria	9	2	7
Senegal	7	3	4
Nigeria	6	2	4
Angola	3	3	0
Ghana	1	0	1
Ginea-Bissau	1	0	1
Mali	1	0	1
<b>Amerika</b>	<b>143</b>	<b>88</b>	<b>55</b>
Nikaragua	22	19	3
Kolonbia	20	13	7
Ekuatore	16	5	11
Dominikar Errepublika	15	10	5
Brasil	12	9	3
Venezuela	10	5	5
Kuba	9	5	4
Argentina	9	5	4
Peru	9	5	4
Honduras	7	4	3
Mexiko	5	2	3
Bolivia	5	4	1
Txile	3	2	1
Uruguai	1	0	1